



**EUSKAL DANTZA**  
LA DANSE BASQUE


08

Oier Araolaza Arrieta

**BASQUE.**



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



**EUSKAL DANTZA**  
LA DANSE BASQUE

Oier Araolaza Arrieta

**BASQUE.**

1	Euskara La langue basque
2	Literatura La littérature
3	Musika klasikoa La musique classique
4	Euskal kantagintza: pop, rock, folk La chanson basque : pop, rock, folk
5	Artea L'art
6	Zinema Le cinéma
7	Arkitektura eta diseinua L'architecture et le design
<b>8</b>	<b>Euskal dantza La danse basque</b>
9	Bertsolaritza Le bertsolarisme
10	Tradizioak Les traditions
11	Sukaldaritza La cuisine
12	Antzerkia Le théâtre

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralte komunak eta denbora-mugarri berberek zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugan jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoa piztea du helburu.

Cette collection créée par l’Institut basque Etxepare réunit douze disciplines culturelles. Elles sont toutes les maillons d’une même chaîne, car elles partagent la même langue, le même territoire, et la même histoire. À travers notre culture, nous vous invitons à être témoin de la fusion entre tradition et innovation, du mélange du local et de l’étranger dans le territoire de la langue basque. Nous vous invitons à découvrir d'où nous venons, où nous en sommes, et vers où nous allons. Cette collection est un point de départ destiné à éveiller votre curiosité et à susciter le désir de mieux connaître la culture basque.

## EUSKAL DANTZA LA DANSE BASQUE

Oier Araolaza Arrieta

10	Euskal dantza, euskaldunon gorputz-hizkuntza	La danse basque, langage corporel des Basques
14	‘Pas de basque’	‘Pas de Basque’
20	Neguko festak, inauteriak dantzan	Fêtes hivernales, carnavaux dansés
28	Negua joan, uda etorri, eta dantzan berriz	L’hiver s’en va, l’été arrive, et la danse continue
36	Dantza tradizionalen loraldia	Le renouveau des danses traditionnelles
48	Dantzaldi gidatuak eta dantzazaleak	Danses guidées et la passion pour la danse
50	Euskal dantzarien diaspora	La diaspora des danseurs basques
56	Dantza-maitaleak	Amoureux de la danse
58	Sortzaile glokalak	Créateurs glocaux
64	Dantza-egutegia	Calendrier de danse
68	Bibliografia laburra	Bibliographie courte



Nola lortu du Mendebareko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak berezko lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

Comment la seule langue indigène d'Europe occidentale qui ne soit pas d'origine indo-européenne a-t-elle réussi à prendre sa place au XXIe siècle ? Qu'est-ce que la culture basque aujourd'hui, et qu'est-ce qui la distingue des autres cultures ?

À travers les livres de cette collection, l'Institut basque Etxepare souhaite proposer des réponses, afin de tendre la main à d'autres cultures et identités. Car se connaître mutuellement est le seul moyen de nous apprécier et de nous comprendre. Ongi etorri.



## Euskal dantza, euskaldunon gorputz-hizkuntza

Tokian tokiko dantza tradizionalekin hasi eta abangoardiako antzerki fisikoraino, euskal dantzak nortasun berezikoskaintza zabala eta anitza du dantzaz gozatu nahi duenarentzat. Euskaldunek beren kulturarekiko erakutsi duten atxikimenduari esker, tradiziozko dantza-errepertorio aberatsak eta ikusgarriak iraun du Euskal Herrian, eta gizarte-aldeketei egokitut ahal izateko bere burua berritzen asmatu du. Ohiko festa-egutegian txertatuta, ikuskizun-programazioan integratuta edo gizarte mediatikoaren protokolo-beharrei erantzunez, dantza bizi-bizi dago euskal kulturaren egunerokoan.

Kultura orotan, gizarte guztietan, ahozko hizkuntzarekin batera bada beste lengoaia bat komunikatzeko, sentitzeko, adierazteko, konpartitzeko, azken batean, bizitzeko erabiltzen duguna: dantza. Gorputza patroi erritmikoaren arabera mugimenduan jarri eta, hitz egiteko beharrik gabe, komunikazioaren txinparta pizten da. Kultura guztietan dantzatzen dira emakumeak eta gizonak, eta euskaldunek ere badute dantzarako sena, hots, gorputza musikarekin astintzeko premia. Ahozko hizkuntzaren biziberritzea hauspotu duten bezala, gorputzaren lengoaia ere nabarmen biziberritu dute. Hala, egungo euskal dantzariak koreografia-ondare aberatsa eta sorkuntzarako dantza-lengoaia garaikidea eskura ditu.

1. Aurreskua. Kezka dantza-taldea. Eibar, 2017.

1. Aurresku. Groupe de danse Kezka. Eibar (Guipuscoa), 2017.

## La danse basque, langage corporel des Basques

Des danses traditionnelles locales au théâtre physique d'avant-garde, la danse basque offre à quiconque aime cette discipline un spectre ample et varié, marqué par une identité forte. Grâce à l'attachement qu'ont montré les Basques à leur culture, le répertoire traditionnel, riche et spectaculaire a non seulement pu perdurer au Pays basque, mais il a également su se renouveler pour s'adapter aux évolutions de la société. Totalement intégrée au calendrier des festivités, présente au sein de la programmation de spectacles, et répondant aux besoins protocolaires de la société médiatique, la danse basque vit au cœur de la culture basque au quotidien.

Dans toutes les cultures, toutes les sociétés, parallèlement à la langue orale, il existe un autre langage que nous utilisons pour communiquer, sentir, exprimer, partager, vivre, en somme : ce langage, c'est la danse. Nul besoin de prononcer la moindre parole, il suffit de mettre le corps en mouvement au son des patrons rythmiques pour que surgisse l'étincelle de la communication. Dans toutes les cultures, femmes et hommes dansent. Les Basques également ont l'instinct de la danse, le besoin de faire bouger leur corps avec la musique. Les Basques se sont distingués par leur attachement à la danse et la passion qu'ils ont mise à revitaliser tant la langue orale que le langage corporel. Le danseur basque actuel dispose tout à la fois d'un patrimoine chorégraphique riche, et d'un langage créatif contemporain.

Une telle passion pour la danse fait que jusqu'à aujourd'hui, fêtes locales, célébrations et cérémonies rituelles sont jalonnées de danses. Cette puissante culture chorégraphique a généré des danseurs virtuoses, qui se produisent avec succès sur les scènes du monde entier, que ce soit dans le registre de la danse basque traditionnelle, celui de la danse classique, ou encore celui de la danse contemporaine. La première compagnie de danse, créée à Paris au XVII<sup>e</sup> siècle comptait des danseurs basques, et aujourd'hui, ils sont également très présents dans les grandes compagnies internationales de ballet.

Certaines citations évoquant la passion des Basques pour la danse ont tellement été utilisées qu'elles sont devenues, au fil du temps, de véritables clichés. Déjà au I<sup>e</sup> siècle avant Jésus-Christ, Strabon, dans ses écrits, décrivait les habitants du nord de la péninsule en train de danser ; et dans les descriptions que des voyageurs firent des Basques par la suite, la référence à la danse est fréquente. Toutefois, les clichés, même lorsqu'ils sont fondés sur une réalité, peuvent éclairer un aspect des choses, tandis qu'ils en occultent un autre. Ainsi, considérant que la langue basque, l'euskara, est très différente des langues environnantes, tant du fait de sa structure que de ses origines, le cliché a été extrapolé à la danse basque à laquelle on a également attribué un caractère singulier.

Dans le riche contexte des danses traditionnelles européennes, les danses basques présentent à la fois certaines caractéristiques communes, et d'autres spécifiques. Si l'on considère le calendrier des fêtes, les tournées de quête hivernales, les archétypes des déguisements, les structures des

Dantzarako zaletasun horrek tokian tokiko festak, ospakizunak eta errituak dantzaz bete ditu gaurdaino. Kultura koreografiko indartsuak dantzari trebeak eman ditu, hala euskal dantza tradizionalean ari direnak nola dantza klasikoan eta garaikidean arrakastaz munduan barrena dantzari ari direnak. Parisen, XVII. mendean, sortu zen lehen dantza-konpainian euskal dantzariak egon ziren moduan, gaur egun nazioarteko ballet-konpainia handietan ari dira baita ere euskal dantzariak.

Euskaldunon dantzarako zaletasuna erakusten duten zenbait aipu, erabiliaren erabiliaz, topiko bihurtu ditugu. Estrabonek, Kristo aurreko II. mendean, Iberiar penintsulako iparraldeko herritarrei buruz idatzitakoetan dantzan irudikatu zituen, eta harrezkero bidaiaiek euskaldunoi buruz egindako deskribapenetan dantza maiz agertu da. Baino topikoek, oinarri zuzena duten kasuetan ere, eremu bat argiztatu ahala beste bat itzalez betetzen dute. Euskaldunon hizkuntza, euskara, inguruko hizkuntzekiko egitura aldetik eta jatorriz berezia dela jakinik, euskal dantzari ere topikoen bidez nolabaiteko apartekotasuna egotzi zaio.

Europako dantza tradizionalen testuinguru aberatsean, euskal dantzak ezaugarri komunak eta bereiziak ditu. Festa-egutegia, neguko eske-errondak, mozorroen arketipoak, inauterien ospakizun-egiturak eta koreografia-generoak aintzat hartuta, Europako mendebalde osoa biltzen duen dantzen, musiken, festen eta tradizioen familia handiaren lehengusu-lehengusinak garela ohart gaitezke. Kultura tradizional zabal eta aberats bakarra konpartitzen dugu, nahiz eta bakoitzak bere ezaugarri propioak dituen. Bereizgarri horietako batzuk asko indartu ditu euskal dantzak XX. mendean eta, ondorioz, erabat desberdinak garela sinestera iritsi gara.

Erromantizismoaren eta nazionalismoaren eraginez, azken ehun urteotan kultura tradizionalarekiko interesa piztu, eta folklorea babesteko saiakerak egin dira. Euskal dantzak berpiztuak, lurperatuak, eraldatuak, berreginak, berreskuratuak eta berrasmatuak izan dira behin eta berriz. Gizarte mediaticoan eta globalizatuan, moda eta periferia konplexuen eraginez, berdintzeako eta homogeneizatzeko indarrak dira nagusi. Horien guztien aurrean, desberdintasunak eta marka bereizgarriak nortasunari eusteko defentsak bilakatu dira. Hala, tradiziok datozen dantzeak herrien nortasun bereziak irudikatzeko funtzioa bereganatu dute. Berritzearren zoroak liluratzentz gaitu, baina sustriaietara itzultzen gara behin eta berriz uniformetasunaren itsasoan bereiziko gaituzten ezaugarrien bila.

2. Oyarzun. Fandangoa  
Diartzunen, 1839.

2. Oyarzun. Fandango à  
Oiarzun (Guipuscoa),  
1839.

carnavals ou les genres chorégraphiques, on s'aperçoit que nous sommes les cousins d'une grande famille de danses, de musique, de fêtes et de traditions, qui s'étend sur toute l'Europe occidentale. Nous partageons une même culture traditionnelle vaste et riche, tout en ayant nos propres spécificités. Certaines d'entre elles ont pris une importance croissante dans la danse basque au XXe siècle, au point que nous nous sommes mis à croire que nous étions totalement différents.

Sous l'influence du romantisme et du nationalisme, des tentatives ont été conduites au cours des cent dernières années, afin de raviver l'intérêt pour la culture traditionnelle et sauvegarder le folklore. Les danses basques ont été ressuscitées, enterrées, transformées, revisitées, récupérées, et plus d'une fois réinventées. Dans une société médiatique et globalisée, influencée par les modes et les périphéries complexes, les tentatives d'homogénéisation prévalent. Face à tous ces phénomènes, les différences et les signes distinctifs sont devenus des défenses permettant de maintenir l'identité. Les danses traditionnelles ont assumé la fonction de représentation des identités spécifiques des peuples. Le choc de la nouveauté nous fascine, mais nous retournons sans cesse à nos racines, en quête de marqueurs qui nous distinguent dans l'océan de l'uniformité.





3. Euskal emakumea dantzan, XVI. mendea.

## 'Pas de basque'

Ezpata-dantzak, trogeo-dantzak eta soka-dantzak dantza-molde zabalduak izan dira XVI. mendetik aurrera Euskal Herrian. Erritual, protokolo, ospakizun berezi, Corpus egun, San Joan eta tokian tokiko santutegiaren araberako jai-egun handienetan ezpata-dantzak izan dira izar distiratsuenak. Erritualaren ondoko festan zein iganderoko olgetan, euskaldunek soka-dantzak dantzatzeko zaletasuna izan dute.

Protokolorako nahiz festarako, ondo prestatutako dantzariak izango ziren 1660ko maiatzean Luis XIV.ak Lapurdin ikusi

3. Femme basque en train de danser, XVIe siècle.

## 'Pas de Basque'

Les ezpata-dantzak (dances des épées), trogeo-dantzak (dances avec des bâtons et des petits boucliers), et les soka-dantzak (dances en chaîne) ont été très répandues au Pays basque, dès le XVI<sup>e</sup> siècle et jusqu'à nos jours. Les danses des épées ont été les étoiles incontestables qui ont illuminé les cérémonies rituelles et protocolaires, les célébrations particulières, la Fête-Dieu, la Saint-Jean et les fêtes locales dédiées à tel ou tel saint patron. Lors des festivités qui suivaient les cérémonies ou du congé dominical, les Basques avaient coutume de danser les soka-dantzak.

Les danseurs que Louis XIV vit probablement en Labourd en mai 1660 à l'occasion de cérémonies protocolaires ou de festivités, devaient être particulièrement virtuoses. Le mariage entre Louis et Marie-Thérèse d'Autriche fut un mariage d'État, et les noces célébrées à Saint-Jean-de-Luz, furent à la hauteur de l'événement. Il semble que ces danseurs firent forte impression sur le Roi Soleil car, un an plus tard, en 1661, lorsqu'il créa l'Académie de Danse, il demanda à plusieurs danseurs basques d'intégrer cette institution. Serait-ce pour cette raison que le terme *pas de Basque* figure dans la nomenclature de la danse classique ? Le *pas de Basque* ou *saut de Basque* est dansé dans toutes les écoles de ballet. Dans la nomenclature de la danse classique, ce sont les seuls pas bénéficiant d'une appellation d'origine.

Nous ignorons quelle empreinte laissèrent les danseurs basques ayant intégré cette première Académie de Danse à Paris. En dehors de ces noms évocateurs qui sont gravés dans l'histoire de la danse classique, nous ignorons tout de l'influence qu'ont pu exercer les Basques dans l'évolution du ballet. On souligne fréquemment les similitudes que présentent les danses des provinces du Guipuscoa et de Soule, avec la danse académique. Mais nous devons reconnaître que l'ombre du mythe est plus tenace que le fil des recherches conduites sur ce thème, et que nous savons peu de choses en dehors des rares données déjà mentionnées.

Quoiqu'il en soit, il ne fait aucun doute qu'il existe des similitudes chorégraphiques, et pas seulement entre la danse basque et la danse classique. En observant pas à pas les danses Morris en Angleterre, l'école du Boléro en Espagne, les danses de caractère provençales ou les Călușari roumaines, on constate d'étonnantes parentés. Comme l'explique Juan Antonio Urbelz, on retrouve dans les académies militaires des XVIII<sup>e</sup> et XIX<sup>e</sup> siècles le même répertoire et la même didactique que ceux utilisés par les maîtres de ballet à partir du XVI<sup>e</sup> siècle dans les cours européennes, et décrits par Juan Inazio Iztueta, de Zaldibia, dans un livre sur les danses guipuzcoanes publié en 1824.

Le mouvement romantique, dans un premier temps, puis le nationalisme, prirent fait et cause pour des genres de musique et de danse qui avaient été abandonnés suite à la crise de la société rurale. À la fin du XIX<sup>e</sup> siècle et au début du XX<sup>e</sup>, certains pans de la culture traditionnelle, alors déclinante, furent sélectionnés et présentés dans le cadre d'un programme à caractère exceptionnel. Parallèlement, le Parti Nationaliste Basque s'attacha à préparer et diffuser un programme ludique autant que symbolique, en complément de son programme politique. Sabino Arana, fondateur du nationalisme, choisit la *dantzari-dantza* de la région de Durango (Biscaye) comme image forte représentant le mieux l'identité basque, et à travers le réseau des *Batzokis* (sièges ou locaux du Parti

zituenak. Frantziako erregearen eta Austriako María Teresaren artekoia estatu-ekontza izan zen, eta neurriko ezteiak ospatu zituzten Donibane Lohizunen. Diotenez, bertan ikusitako dantzarien oroitzapena Parisera eraman zuen *Eguzki Erregeak* eta, urtebete beranduago, 1661an, dantzaren akademia sortu zuanean, hainbat euskal dantzari deitu omen zituen bertara. Horren ondorio ote dira dantza klasikoaren izendegian ageri zaizkigun «euskal urratsak»? *Pas de basque* edo *saut de basque* ballet-eskola guztietan dantzatzen dira. Dantza klasikoaren izendegian jatorrizko izendapena duten urrats bakarrak dira.

Ez dakigu Parisko lehen dantza-akademia horretan aritu ziren euskal dantzariekin zer-nolako arrastoa utzi zuten. Dantza klasikoan jasotako izen deigarri horiez gain, ezer gutxi dakigu balletaren bilakaeran euskaldunek izan zuten eraginaz. Euskal dantza ballet klasikoaren *ama* izan daitekeela argudiatzeko, maiz Gipuzkoako eta Zuberoako dantzak dantza akademikoarekin dituzten antzekotasunak azpimarratzen dira. Baino aitoru behar dugu gaiari buruzko ikerketen soka baino luzeagoa dela mitoaren itzala eta, aipatutako datu urriez harago, horri buruz ezer gutxi dakigula.

Nolanahi ere, koreografia-antzekotasunak daudenik ez da zalantzan jartzen, eta ez bakarrik euskal dantza eta dantza klasikoaren artean. Ingalaterrako Morris dantzak, Espainiako Eskola Boleroa, Proventzako karaktere dantzak edo Errumania Călușari dantzak urratsez urrats aztertuz gero, harriarriak dira aurki daitezkeen antzekotasunak. Juan Antonio Urbeltzak azaldu duenez, XVI. mendetik aurrera Europako gorteetan dantzamaisuek jorratzen zuten errepertorio eta dantzaren didaktika berak aurki daitezke XVIII. eta XIX. mendeetako akademia militarretan, baita Juan Inazio Iztueta zaldibiarra 1824an argitaratutako Gipuzkoako dantzei buruzko liburuan ere.

Mugimendu errromantikoak lehenengo eta nazionalismoak ondoren, nekazaritza-gizartearen krisiaren ondorioz bertan behera geratzen ari ziren musika- eta dantza-moldeak sustatu zituzten. XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran Euskal Festek desagertze bidean zegoen kultura tradizionalaren ale batzuk aukeratu, eta ezohiko ospakizun-programa batean aurkeztu zituzten. Aldi berean, Eusko Alderdi Jeltzaleak, bere programa politikoaren osagarri, programa ludiko-simboliko bat egokitzen zuen eta zabaltzeari ekin zion. Durangaldeko dantzari-dantza hautatu zuen Sabino Aranak euskal nortasuna egokien islatzen zuen irudi gartsutzat, eta Batzoki-sarearen bidez Euskal Herri osoko gazteak jarri zituzten ezpata-dantza dantzatzen.

Alde batetik, Resurrección María Azkue eta José Gonzalo Zulaika Aita Donostia gidari zirela, folklorearen alorrean ustez desagertzen ari zen kultura erreskatatzeko edo gutxienez biltzeko ahaleginak egiten ari ziren. Bestetik, abangoardiako korronte artistikoen emankortasunak erakarrita sorkuntza puri-purian zegoen. Europa osoa korritu berri zuten errusiak ballet folklorikoek harridura- eta emozio-arrasto sakonak utzi berriak zituzten. Euskal musika eta dantzak lehengai bikainak izanda, eszenaratze- eta balletizazio-joerak baliatuz beste horrenbeste egiteko batu ziren hainbat euskal ekintzaile. Segundo Olaetak Elai-Alai taldea sortu zuen Gernikan 1927an eta, urtebete beranduago, *Saski Naski* ikuskizuna aurkeztu zuten Donostian, bertan Orfeoiko kantariek, Orkestra sinfonikoak, eta Donostiako, Berrizko, Izpurako eta Atharratzeko dantzariekin parte hartu zuten.

Bilketa-, ikerketa-, sustatze- eta sorkuntza-lanetan bizi-biziak izan ziren gerra aurreko urteak. 36ko gerrak errotik eten zuen mugimendu hura, baina hondamendiaren erdian bi ekimen loratu ziren. Olaetaren Elai-Alaik

4. Aurreskua Zarautzen XX. mende hasieran.



Nationaliste Basque), les jeunes de tout le Pays basque furent encouragés à danser la danse des épées.

D'une part, sous l'impulsion de Resurrección María de Azkue et José Gonzalo Zulaika (plus connu sous le nom de Père Donostia), des efforts furent conduits pour sauvegarder, ou du moins recueillir une culture qui semblait menacée de disparition dans le champ du folklore. D'autre part, l'inventivité des nouveaux courants artistiques d'avant-garde provoqua une véritable effervescence dans le domaine de la création. Les ballets folkloriques russes qui venaient de parcourir l'ensemble de l'Europe avaient laissé derrière eux une trace profonde, empreinte d'admiration et d'émotion. La musique et la danse basques étant des matières premières exceptionnelles, certains Basques entreprirent de faire aussi bien que leurs homologues russes, en ayant recours aux tendances de l'époque à privilégier la mise en scène et la balletisation. En 1927, à Gernika (Biscaye), Segundo Olaeta créa la compagnie Elai-Alai, et un an plus tard, le spectacle *Saski Naski* fut présenté à Saint-Sébastien, avec la participation de chanteurs de l'Orphéon, de l'Orchestre Symphonique, et de danseurs de Saint-Sébastien, Berriz (Biscaye), Izpura (Ispoure, Basse Navarre) et Atharratze (Tardets, Soule).

Les années précédant la guerre furent riches en travaux de documentation, recherche, promotion et création. La guerre civile d'Espagne interrompit brutalement ce mouvement. Pourtant, au cœur de la tragédie, deux initiatives virent le jour. Le groupe Elai-Alai (littéralement les Joyeuses Hirondelles) d'Olaeta déploya ses ailes pour voler à travers l'Europe, faisant de ce groupe d'orphelins des ambassadeurs de la culture basque. En France, ils allèrent à la rencontre d'une « ambassade » chorégraphique et musicale mise en place par le Gouvernement basque :

hegoak astindu eta Europara hegan egin zuen, hala umezurtz-talde hura euskal kulturaren enbaxadore bilakatu zen. Frantzian, Eusko Jaurlaritzak berak antolatutako musika- eta koreografia-enbaxadarekin egin zuten topo: Eresoinka. Gerra kulturaren eta komunikazioaren eremuatan egiteko asmoz, Eusko Jaurlaritzak euskal kantari-, musikari-, sortzaile- eta dantzari-talde handia bildu zuen. Saran prestaketa-lanak egin ondoren, besteak beste, Paris, Brusela, Amsterdam, Haga, Rotterdam edo Londresen emanaldiak eskaini zituen.

Gerra galdua, etxera itzuli ezinda aurkitu ziren Eresoinka eta Elai-Alaiko dantzariak. Batzuk Lapurdin finkatu ziren eta beste batzuk, artista nomada bihurtuta, Hego Ameriketan birak eginez segida eman zioten euskal kultura eta dantza lau haizeetara zabaltzeko lanari. Dantza klasikoan trebatu eta euskal dantza tradizionalak eszenaratzeko eredu akademiko errusiarrak jorratzen jarraitu zuten. Hazi hartatik ernaldu ziren hurrengo hamarkadetan XX. mendeko euskal dantzaren hainbat ekimen. Schola Cantorum eta Kresala Donostian eta Oldarra eta Etorki Lapurdin, besteak beste. Donostiako Goizaldi dantza-taldeak, tradizioari lotuago, Gipuzkoako dantzen interpretazio distiratsuari esker ospea irabazia zuen.

1960ko hamarkadan euskal kulturaren susperraldia eragin zuen Jorge Oteizak akuilatutako Arte Garaikidearen Euskal Eskolak, eta haren ondotik Ez dok amairu taldeak musikan lurrikara eragin zuen bezala, dantza-jarduna errotik irauli zuen Argia dantzari-taldeak. Juan Antonio Urbeltzen gidaritzapean, taldeak dantza tradizionalek sustraiak ikertzeko, tokian tokiko folklore bilketa-lana abiatzeko eta koreografia-ondare tradizionala balioztatzeko, berreskuratzeko eta birsortzeko olatu handia eragin zuen.



5

5. Aurrezku à Orio  
(Guipuscoa), 1942.

5. Aurrezku à Orio  
(Guipuscoa), 1942.

le groupe Eresoinka. Avec l'intention de faire la guerre sur le terrain culturel et de la communication, le Gouvernement basque rassembla un groupe important de chanteurs, musiciens, créateurs et danseurs basques qui, après avoir longuement répété à Sara (Labourd), se produisit notamment à Paris, Bruxelles, Amsterdam, La Haye, Rotterdam ou encore Londres.

Après la défaite, les danseurs d'Eresoinka et Elai-Alai se trouvèrent dans l'impossibilité de rentrer au pays. Certains s'établirent dans la province du Labourd et d'autres, devenus artistes nomades, poursuivirent le travail de diffusion de la culture et de la danse basques, notamment en effectuant des tournées en Amérique du Sud. Ils se formèrent à la danse classique et continuèrent à appliquer le modèle académique russe pour la mise en scène des danses traditionnelles basques. Ces germes donnèrent naissance, au cours des décennies suivantes, à de nombreuses initiatives dans l'univers de la danse basque du XXe siècle, parmi lesquelles la Schola Cantorum ainsi que Kresala à Saint-Sébastien, ou encore Oldarra et Etorki en Labourd. Plus attachée à la tradition, la compagnie de danse Goizaldi, de Saint-Sébastien, gagna sa renommée grâce à sa brillante interprétation des danses du Guipuscoa.

Dans les années 1960, l'École Basque d'Art Contemporain, inspirée par le sculpteur Jorge Oteiza, initia le renouveau de la culture basque. Dans son sillage, la compagnie Argia révolutionna le monde de la danse, tout comme le groupe Ez dok hamairu provoqua un véritable séisme dans le paysage musical. Sous la direction de Juan Antonio Urbeltz, le groupe étudia les racines des danses traditionnelles, entreprit un travail de collecte du folklore local, et s'efforça de valoriser, récupérer et recréer le patrimoine chorégraphique traditionnel.

## Neguko festak, inauteriak dantzan



6

Arimen Gaua eta Domu Santu egunarekin hasi, eta hausterre-egunera bitartean neguko festak ospatzen dira Euskal Herrian eta Europako mendebalde osoan. Arimen Gauaren edo Gau Beltzaren ospakizunak ahanzturaren pu-tzuan galtzekotan izan diren arren, orain Halloween ekarri du merkataritza-industriak eta badirudi berriz ere indartzen hasiak direla. Izan ere, festa bera da bien oinarrian dagoena. Gaurko gazteentzat Hollywoodeko filmetako kontuak dira, baina beren aitona-amonek Arimen Gaua ospatzeko kalabazak hustu, kandelak jarri eta bide-bazterretan bizilagunak izutzeko ohitura zuten filmetan halakorik ikusi aurretik.

Gazte-kuadrilla bat elkartzen da eta baserriz baserri edota etxez etxe joaten da herriko atari guztiak bisitatzen. Etxe bakoitzaren aurrean kantuan edo dantzan egin, eta ondoren gabonsaria eskatzen dute: jatekoa edo dirua. Errondak dira, eskeak, neguko festetan ezinbestekoak. Oilasko-biltzeak San Martinetan, gabonsari-eskeak San Nikolasen aitzakian, Olentzero, Agate Deunaren eskea, inauterietako puska-biltzeak... Neguko errondak kantuz eta dantzaz beteta ageri dira, eta ez dira edonolako dantzak. Euskal inauterietan Europa zaharreko erritual aberats bezain harrigarriak dantza-tradizio ikusgarriz gorputzta aurki daitezke.

6. Maskaradak  
Altzürükun, 2020.

6. Mascarade à  
Altzürük - Aussurucq  
(Soule), 2020.

Dans la période comprise entre le jour de la Toussaint et le mercredi des Cendres, le Pays basque, et l'Europe occidentale dans son ensemble, vivent au rythme des fêtes hivernales. Les célébrations de la nuit des morts ou nuit des sorcières menaçaient de tomber dans l'oubli, mais à présent, avec l'apparition de la fête d'Halloween véhiculée par l'industrie commerciale, il semble qu'elles soient à nouveau d'actualité. Pour les jeunes d'aujourd'hui, ce sont des histoires associées aux films d'Hollywood. Pourtant, avant même que le cinéma ne leur montre toutes ces choses, leurs grands-parents avaient déjà coutume, pour célébrer la nuit des morts, de vider des citrouilles, d'y introduire des bougies et de les placer sur le bord des chemins afin d'effrayer les habitants du village.

Des groupes de jeunes se formaient pour rendre visite à toutes les maisons et fermes du village. On chantait et on dansait devant chaque demeure pour, ensuite, demander les étrennes, sous forme de nourriture ou d'argent. Les tournées, les quêtes sont indissociablement liées aux fêtes hivernales. Collectes de poulets à la Saint Martin, demandes d'étrennes à la Saint Nicolas, Olentzero (le charbonnier à Noël), quête de la Sainte Agathe, collectes de carnavales... Les tournées hivernales sont accompagnées de chants et de danses spécifiques. Dans les carnavales basques, on peut découvrir toute la richesse des rituels étonnantes de la vieille Europe incarnés par des danses traditionnelles spectaculaires.

Les mascarades souletines sont également des rituels impressionnantes dans lesquels on peut retrouver la fonction sociale, l'héritage symbolique et les superbes danses des carnavales. Chaque année, les jeunes d'un village s'engagent à préparer la mascarade et à l'emmener dans les autres localités. Cette décision n'est pas à prendre à la légère, car les villages sont généralement de petite taille et, pour relever pareil défi, il est nécessaire que la quasi-totalité des jeunes de la localité assume la responsabilité des tâches à accomplir. Il faut trouver des danseurs expérimentés, des chanteurs aguerris, des bravaches pour la raillerie et le chahut, des acteurs un brin provocateurs et capables de déclamer, ainsi que des musiciens.

Depuis quelques années, les mascarades sont généralement célébrées à partir du deuxième ou troisième week-end de janvier jusqu'au dimanche de Pâques. Le groupe de participants à la mascarade arrive le samedi ou le dimanche matin dans le village choisi. Il est reçu par une barricade symbolique. Après avoir dansé et chanté, les jeunes gens ont le droit de déguster un premier apéritif. Barricades, danses, chants, casse-croûte et boisson... le rituel se répète d'un quartier à l'autre, durant toute la matinée.

Les participants à la mascarade forment une troupe colorée et bruyante. Les rouges (*gorriak*) sont de grands danseurs ; les noirs (*beltzak*) sont des sauvages, provocateurs et turbulents. Les rémouleurs (*txorrotxak*) chantent à deux voix, et font office de présentateurs et de chroniqueurs. Les chaudronniers (*kauterak*) et les bohémiens (*buhameak*) utilisent leur impertinence pour faire sourire le public et

## Fêtes hivernales, carnavals dansés

Zuberoako maskaradak inauterien funtzi soziala, aztarna sinbolikoa eta dantza miragarriak biltzen dituen erritual ikusgarriak dira. Herri bateko gazteek beren gain hartzen dute maskaradak prestatu eta herriz herri eramateko ardura. Ez da erabaki erraza, herri txikiak baitira gehienak, eta horrelako erronka bati aurre egiteko herriko ia gazte guztiek egin beharko baitute lanen bat. Ongi trebatutako dantzariak behar dira, ahots gozoko kantariak, trufarako eta ankerkerietarako prest dauden kankailuak, probokataileak eta esatari txukunak izango diren antzerkilariak, baita musikariak ere.

Urtarrileko bigarren edo hirugarren asteburuan hasita, Pazko-igandera arte luzatzen dira azken urteotan maskaraden egutegiak. Larunbat edo igande goizean iristen da maskaradarien taldea dagokien herrira. Barrikada sinboliko bat dute harrera egiteko. Dantzan eta kantuaren iragan, eta lehen jan-edanaz gozatzeko eskubidea irabaziko dute. Barrikadak, dantzak, kantuak eta jan-edanak goiz osoan errepikatzen dira auzorik auzo.

Konpartsa koloretsua eta zaratatsua osatzen dute maskaradarieki. Dantzari finak dira gorriak; basatiak, zirikatzailak eta zalapartatsuak, beltzak. Eztarri finez, bi ahotsez kantatzen dute txorrotxek aurkezle-lanak eginez, eta kritika soziala eta irria eragiteko etorri bihurria darabilte kauterek eta buhameek. Zuberoako dantza-teknika berezian trebatutako bost aitzindarieki



7

- 7.** Kabalkada Irisarrin, 2012.  
**8.** Talai-dantzariak  
Amezketako  
inauterietan, 2018.



8

- 7.** Kabalkada à Irisarri (Basse Navarre), 2012.  
**8.** Les talai-dantzariak au carnaval d'Amezketa (Guipuscoa), 2018.

entamer une critique sociale. Les cinq éclaireurs (*aitzindariak*), experts en danse souletine —*zamaltzaina* (l'homme cheval), *txerreroa* (le gardien des porcs), *kantinersa* (la cantinière), *gathuzaina* (le chat) et *entseinaria* (le porte-enseigne)— font montre de talents exceptionnels pour la danse. Les danseurs souletins interprètent les sauts avec des pas mesurés et en effleurant le sol, mais ils défient la gravité avec les barricades, les gavottes, les branles et la danse du verre (*godalet dantza*). Lorsqu'ils exécutent des pas comme le *frijat* ou l'*antrixtat* (entrechat), ils décollent du sol, mais sans regarder vers le ciel. Comme dans la plupart des danses traditionnelles, les Souletins font un avec la terre quand ils dansent. En sautant, ils s'élèvent le plus haut possible, mais ils impriment également une force dans la descente. La petite flûte dénommée *txirula*, le *ttun-ttun* ou tambourin à cordes, le tambour et le violon rythment les points d'appui effectués par les pieds des danseurs sur le sol.

Les premiers carnavaux du Labourd démarrent à la fin du mois de janvier ou au début du mois de février. Cependant, à la différence de la Soule, en Labourd ce n'est pas un seul groupe qui visite tout le territoire. Dans chaque commune un groupe s'organise durant le carnaval pour faire la tournée des fermes, des maisons et des différents quartiers. Dans certains villages, la tournée peut durer deux, trois, ou même quatre week-ends.

Les principaux personnages du carnaval labourdin sont les *kaskarot*. Ils sont coiffés de chapeaux fleuris, couverts de rubans et d'ornements colorés, et munis de deux bâtons. Organisés en groupe de huit, ils exécutent les danses suivantes : *makila-dantzak* (dances des bâtons), *dantza-jauziak* (sauts de danse), *marmutx* (danse des petits bâtons),



9

—zamaltzainak, txerreroak, kantiniersak, gathuzainak eta entseinariak— dantzarako dohain harrigarriak erakusten dituzte. Dantza-jauziak urrats neurutz eta lurra laztanduz dantzatzen dituzte, baina barrikadan, gabotan, branletik jauztean edo godaletean grabitateari desafio egiten diote dantzari zuberotarrek. Gora jauzi eta frijat eta antrixat-ekin lurretik askatzen dira, baina ez dira zerura begira ari dantzan. Dantza tradizional gehienetan bezala, lurrarekin dantzatzen dira zuberotarrak ere. Jauzi egiterakoan ahalik eta goren egiten dute, baina goitik beherakoa ere indarrez burutzen dute. Txirularen, ttun-ttunaren, atabalaren eta arrabitaren doinuek markatzen dituzte dantzarien oinek lurra hartzen duten puntuak.

Lapurdi urtarrila amaieran edo otsaila hasieran martxan izaten dira inauteri goiztiarenak. Hala ere, Zuberoan ez bezala, Lapurdi ez du talde bakar batek herrialde osoa bisitatzen. Udalerrri bakoitzean talde bat antolatzen da eta herriko baserriak, etxeak eta auzoak bisitatuko ditu inauteri- aroan. Zenbait herritan bi, hiru edo lau asteburuz luza daiteke erronda.

Kaskarotak dira Lapurdiko inauteri-etako mozarro nagusiak. Lorez apaindutako kapela, xingola eta apaingarri koloretsuak soinean, eskuan bi makila dituztela aritzen dira kaskarotak. Zortziko taldetan antolatuta, makila-dantzak egiten dituzte, baita dantza-jauziak, marmutxak, xinpleak, kontra-dantzak, soka-dantzak, fandangoak eta arin-arinak ere. Neska-mutil dantzariekin batera, hauek ere osatzen dute Lapurdiko inauterietako konpartsak: besta gorri, ponpier, kotilun gorri, jaun-andere, hartz eta tarteka, herrien arabera, ager daitezkeen bestelako mozorroek.

Lapurdi kaskaroten oso hurbileko inauteria Abaltzisketan, Gipuzkoan, aurki daiteke. Zortzi dantzari zapi koloretsuz apainduak, makila-dantza egiten dutenak baserriz baserri puska-biltzean. Txantxoak

- 9.** Txantxoak  
Abaltzisketan, 2005.  
**10.** Kaskarotak  
Beskoitze  
- Briscous (Labourd),  
inauterietan, 2019.

xinple, kontra-dantza (contredanse), soka-dantza (danse en chaîne), fandango et arin-arin. Aux côtés des danseurs —filles et garçons—, les groupes porte-drapeaux, les *besta-gorriak* (vestes rouges), *ponpierrick*, *kotilun-gorriak* (jupons rouges), *jaun-andereak* (messieurs et dames), l'ours et, selon les villages, divers personnages déguisés composent le défilé.

Il existe un carnaval très proche des *kaskarot* du Labourd à Abaltzisketa, en Guipuscoa. Huit danseurs ornés de foulards colorés, exécutent la danse des bâtons (*makila-dantza*) en faisant la quête de ferme en ferme. Ce sont les *txantxoak* qui, accompagnés par un accordéoniste, interprètent cette danse. La troupe qui défile est ici plus sobre, et deux autres personnages seulement interviennent aux côtés des *txantxoak*. Avant de danser, l'un d'eux passe le balai sur le seuil de la ferme, tandis que le second, le fabricant de paniers, collecte la nourriture offerte par le fermier. Dans le village d'Amezketa (Guipuscoa), les *talai-dantzariak* exécutent pratiquement la même danse des bâtons que les *txantxoak*, mais sur un air plus enlevé. À la frontière entre le Guipuscoa et la Biscaye, dans le village de Markina-Xemein (Biscaye), on trouve un autre groupe de danseurs de *makila-dantza*, le dimanche gras. Ces derniers exécutent la *zahagi-dantza* (danse de l'autre) et complètent leur représentation en interprétant la danse de l'ours.

En hiver, là où se déroule un carnaval, quelle que soit son appellation locale (*ihoteak, inauteak, inauteriak, karnabalaak ou aratusteak*), la danse est au rendez-vous. Dans le nord de la Navarre, les carnavaux sont encore aujourd'hui très vivaces, et de nombreux groupes de jeunes participent aux quêtes, prêts à danser en toute occasion. Les *goitarrak* (ceux d'en-haut) de Lesaka dansent le *fandango* et l'*arin-arin* devant chaque ferme. Vêtus de rouge et blanc, les jeunes gens répandent couleur et joie aux fermes isolées des quartiers d'Endara, Auzoberri et Zala.

Le carnaval de Lantz (Navarre) est devenu emblématique du carnaval basque, car la richesse du défilé et des déguisements y est



10

dira, eta soinujoleak lagunduta aritzen dira makila-dantzan. Konpartsua soilagoa ageri zaigu hemen; txantxoekin batera bi mozorro aritzen dira. Dantzatu aurretik baserriko ataria erratzez garbitzen du batek, eta baserritarra emandako jakiak biltzen ditu bigarrenak, zesterok. Txantxoek dantzatzen duten makila-dantza bertsua, baina biziagoa, egiten dute Amezketan talai-dantzariek. Gipuzkoatik Bizkaira sartu orduko, mugan bertan, Markina-Xemeinen, beste makila-dantzari talde bat aurki daiteke. Zahagi-dantzan aritzen dira, eta hartzaren dantzarekin osatzen dute saioa.

Ihoteak, inauteriak, karnabalak edo aratusteak non, dantzak han izaten dira neguan. Nafarroako iparraldean inauteriak bizi-bizi dira gaur egun. Eskean ateratzen diren gazte-taldeak ugariak dira eta dantzarako prest daude gehienetan. Lesakako Goitarrek fandangoa eta arin-arina dantzatzen dute baserri bakoitzen aurrean. Talde zurigorriak kolorea eta alaitasuna zabaltzen ditu Endara, Auzoberri eta Zala auzoetako baserri sakabanatuetaan.

Euskal inauteriaren beraren sinboletako bat bihurtu da Lantzekoa, izan ere, hango mozorro-festaren eta konpartsaren aberastasuna ezohikoa da. Arotzek edonor izutu eta ferratuko dute oharkabean. Geldiezinak dira txantxoen oihuak eta joan-etorriak, zaldikoaren jauzi eta ostikoak eta Ziripot mozorro itzelaren ibilkera trakets eta oreka-arazoak. Miel Otxin erraldoiaren epaketarekin eta erretzearekin amaitzen da errituala, haren inguruan guztiak zortzikoa dantzatzen dute txistulariaren doinura. Astearte-inautean dantza egiten da urtero Lantzen eta beste zenbait herrian.



11

- 11.** Inauteriak Lantzen, 2014.  
**12.** Sagar-dantzaria Arizkuneko inauterian, 2020.

- 11.** Carnaval de Lantz (Navarre), 2014.  
**12.** Le *sagar-dantzaria* (danser de pomme) au carnaval d'Arizkun (Navarre), 2020.



12

extraordinaire. Les forgerons effraient et ferment n'importe quelle personne prise au hasard, les cris et les allées et venues des txantxoak sont incessants, le *zaldiko* (cheval) rue et charge la foule, l'énorme *ziripot* à la démarche maladroite a des problèmes d'équilibre ; le rite se termine par le procès du géant Miel Otxin qui sera brûlé sur la place, où tous vont danser autour de lui le *zortziko* au son du *txistu*. Chaque année, le mardi gras est placé sous le signe de la danse, à Lantz comme dans beaucoup d'autres villages.



13. Danse sur le pont à Lesaka (Navarre), 2019.

## Negua joan, uda etorri, eta dantzan berriz

Maiatzarekin batera festak hasten dira herriz herri eta jai-egutegiak ez du atsedenik urrira arte. Santuen egutegiak datak zehazten ditu tokian tokiko festak ospatzeko. Gainera, Pazko-igandearen arabera, inauterietatik hasi eta Corpus egunera bitartean antolatzen diren jai mugikorrekintartekatzen dira. Ezpata-dantzen, trokeo-dantzen eta soka-dantzen garaia da.

### BESTABERRI

Festaren egitura erritual, osagaien anitzasun eta dantzen eta janzkeren aberastasunari erreparatuta, luzaroan Corpus eguneko jaia izan da distiratsuena. Oñatiko festak, esate baterako, gorazarre egiten dio eliza-segizioen protokoloari eta apaïndura barrokoen loriari. Apostoluen, Mikel Deunaren eta Kristoren irudi bizien artean, kaskaineta- eta txistuhotsek iragartzen dituzte Oñatz taldeko dantzariak. Dantzakera neurtu eta dotorez aletzen dituzte Corpus egunari lotuta iraun duten Corpus dantzak: San Sebastian, banakoa, launakoa, zortzikoa eta arku-dantza eta, eguna bukatzean, aurreskua edo soka-dantza.

13. Zubigaineko dantza  
Lesakan, 2019.

## L'hiver s'en va, l'été arrive, et la danse continue

Avec l'arrivée du mois de mai débutent les fêtes locales et le calendrier festif ne connaît plus de répit jusqu'en octobre. Les dates spécifiques des fêtes locales suivent le calendrier des Saints. Toutefois, en fonction de la date à laquelle tombe le dimanche de Pâques, il existe aussi un certain nombre de fêtes « mobiles » qui s'intercalent dans la période allant du carnaval à la Fête-Dieu. C'est la saison des *ezpata-dantzak*, des *trokeo-dantzak* et des *soka-dantzak*.

### LA FÊTE-DIEU

Au regard de la structure de cette fête, du rituel qu'elle représente, de la diversité des éléments qui la composent, et de la richesse de ses danses et de ses costumes, la Fête-Dieu a longtemps été considérée comme une fête prestigieuse entre toutes. Celle d'Oñati (Guipuscoa), par exemple, glorifie le protocole des processions religieuses et les ornements baroques. Au milieu des représentations vivantes des apôtres, de Saint Michel et du Christ, le son des castagnettes et du *txistu* annonce les danseurs du groupe Oñatz. Ils enchaînent avec maîtrise et élégance les danses liées à la célébration du Corps du Christ : *San Sebastian, banako, launako, zortziko et arku-dantza* (danse des arceaux), et pour clôturer la journée, l'*aurresku* ou *soka-dantza*.

Les célébrations de la Fête-Dieu se sont maintenues fortement dans l'intérieur du Labourd et dans certains villages de Basse Navarre. Grâce à l'élégance des marches militaires et du cérémonial, le défilé coloré de la Fête-Dieu du village d'Heleta (Basse Navarre) mérite l'admiration qu'on lui porte. Les sapeurs (*zapurrak*), les coqs (*oilarrak*), les sergents (*sarjentak*), les caporaux (*kaporalak*), les lanciers (*alabardariak*) et les porte-drapeaux (*banderariak*) donnent à voir un superbe cérémonial rythmant la marche qui, en avançant de six pas et en reculant chaque fois de quatre, entre lentement dans l'église.

### LES EZPATA-DANTZAK

Le 3 mai, jour de la Sainte Croix et journée phare des fêtes locales, la danse des épées retient toute l'attention des habitants de Legazpi. La saison des *ezpata-dantzak* débute à Legazpi, et dans les semaines qui vont suivre, elles seront également dansées, entre autres, dans les localités suivantes : Saint-Sébastien, Zumarraga, Tolosa et Deba (Guipuscoa); Markina-Xemein (Biscaye) et Lesaka et Bera (Navarre). Au cours de ces dernières années, d'autres communes se sont mises à exécuter leurs propres danses des épées, imitant en cela les figures déjà mentionnées. Ainsi, à l'heure actuelle, on danse également les *ezpata-dantzak* à Elgoibar, Eibar, Beasain, Añorga et Andoain (Guipuscoa), Portugalete et Sestao (Biscaye), Pampelune (Navarre) ou encore Biarritz (Labourd).

Les danseurs portent des épées, mais pas pour combattre les uns contre les autres. Ces danses sont en fait interprétées en formant une chaîne, comme dans d'autres régions d'Europe. Chaque danseur tient une épée par le manche, et une autre épée par la pointe. Ainsi, les danseurs, reliés par les épées,

Bestaberri edo Corpus eguneko ospakizunei estimu handiz eutsi diete Lapurdiko barnealdeko eta Nafarroa Behereko zenbait herrian. Agerraldi militarren eta martxa zeremonialen dotoreziaz jantzia, ikustekoa da Heletan egiten duten Bestaberriko konpartsak koloretsua. Zapurrek, oilarrek, sargintek, kaporalek, alabardarieki eta banderarieki martxa markatzen dute elizara sartzeko eta ekitaldi zeremoniatsu ederra eskaintzen dute, sei urrats aurrera eta lau atzera eginez geldo-geldo aurreratzen doana.

## EZPATA-DANTZAK

Maiatzaren 3an, Santikutz egunean, herriko jai-egun handian, ezpata-dantzak erakartzen du legazpiaren atentzioa. Ezpatak dantzan jartzeko aroa hasten da Legazpin, eta hurrengo asteetan hainbat herrian izango dira ezpata-dantzak: Donostian, Zumarragan, Tolosan, Markina-Xemeinen, Deban, Lesakan eta Beran, besteak beste. Azken urteotan beste zenbait herrian hasi dira beren ezpata-dantzak egiten aipatutakoena egiturak imitatuz. Hala, Elgoibarren, Eibarren, Beasainen, Iruñean, Añorgan, Biarritz, Portugaleten, Sestaon eta Andoainen ere egiten dira ezpata-dantzak gaur egun.

Ezpatak darabilzate dantzarietik, baina ez elkarrekin borroka egiteko. Europako beste zenbait eskualdetan ezaguna den *katean egiten den* ezpata-dantza estiloan aritzen dira. Dantzari bakoitzak ezpata bat heldulekutik hartzen du eta beste ezpata bat puntatik. Horrela, dantzarietek ezpaten muturrak elkarri emanet katea osatzen dute. Ezpata-dantzariak izenarekin ezagutzen dira gehienak, baina zenbaitek ez darabilte benetako ezpatarik ere. Deban eta Lesakan koloretako xingolaz apaindutako makilak darabilzate, Tolosan alabardak eta Beran sokak.

Ezpatak metro betetik gorako luzerakoak izan ohi dira. Euskaraz *bi eskuko ezpatak* direla esaten da, haien pisuagatik eta tamainagatik *bi eskuak* erabili behar izaten baitira. Taldea ezpata horien bidez elkarlotuta, *bi* edo *lau* lerrotan antolatu eta gidari batek lotzen ditu aurrean lerro-muturrak. Gidariaren aginduetara mugitzen da taldea, eta zenbait koreografia figura egiten dira ezpatak askatu gabe. Zubiak egiterakoan buruzagiak bira-erdia egin eta atzeranzko norabidea hartzen du berarekin aurrealdeko dantzariak eraman, ezpatak altxatu eta gainontzeko dantzarien buru gainetik pasatzen dira. Atzetik datozenek gauza bera egiten dute, talde osoa zubitik pasa eta atzera begira geratzen den arte. Zubi horiek lerroak txandakatuz edo denak batera egin daitezke eta, zenbait tokitan, Deban adibidez, azpitik ere egiten dira dantzari guztiak ezpaten gainetik salto egitera behartuz.

Zubiak dira euskal ezpata-dantzetan ageri zaizkigun koreografia-egitura arruntenak. Ganbaradun arkuak ere egitendira, ohorezkopasabidea eskainiz agintariei eta omenduei. Arrosak ere egiten dira *bi* ezpata-dantzan, Markina-Xemeinen eta Legazpi. Dantzarietek ezpatak elkar gurutzatuz izar-erako egitura borobila osatzen dute eta maisu zaharra altxatzen dute bertan.

Aipatutako koreografia-egiturak arruntak dira Espainia, Frantzia, Ingalaterra, Austria, Italia edo Alemaniako ezpata-dantzetan, baina bada ezaugarri bat euskal ezpata-dantzak bereizten dituena. Bakarlariak

14. Bordon-dantza  
Beran, 2014.



14. Bordon-dantza à  
Bera (Navarre), 2014.

forment une chaîne. La plupart sont dénommés *ezpata-dantzariak* (danseurs aux épées), pourtant certains d'entre eux ne portent pas de véritable épée. À Deba et Lesaka, ils portent des bâtons ornés de rubans colorés, à Tolosa, des lances, et à Bera, des cordes.

Lucía Lakarra zumaiarra da milurteko aldaketa-garaian euskal dantzarien harrobiak eskaini duen izar distiratsuena. Donostiako Thalia akademian eta Madrilgo Víctor Ullateren konpainian trebatu ondoren, Marseillako Balletean Roland Petit-en agindupean jo zuen gailurra, eta harrezkero laudorioak eta nazioarteko sari handienak jaso ditu Lakarrak. San Frantziskoko Balletean aritu zen 1997-2002 bitartean, eta 2003tik Municheko Operako Balleteko izarra da. Besteak beste, Nijinski eta Benois sariak eskuratu ditu, nazioartean balletaren alorrean ematen diren sari ospetsuenak dira, eta hamarkadako dantzari bikainenetan izendatu dute Moskun, Kremlin Jauregian. Lakarraren dantzakera zehatz, neurtuak eta adierazkorrok munduko antzoki nagusietako ikusleak eta kritikariak liluratu ditu.

Munduko opera-etxe eta tradizio handiko ballet-konpainia arrandtsuetan ibilbide profesional arrakastatsuak egiten ari da, baita ere, Itziar Mendizabal. Hondarribiko dantzaria Zuricheko Balletean eta Leipzigen aritu ondoren, Londresko Royal Ballet ospetsura iritsi zen 2010ean; lehen bakalaria da bertan. Halaber, Jiri Kylian-ek zuzendutako Nederlands Dans Theaterren dantzari-ibilbide oparoa burutu du Urtzi Aranburuk. Igor Yebra, bere aldetik, Madrilgo Erkidegoko Balletean, Erromako Operako Balletean edo Bordeleko Operako Balletean lehen dantzari izan da, besteak beste. Yebra Ivan Beldurgarriaren rola Kremlinen jokatu duen errusiarrak ez den lehenengo dantzaria izan da. Bilboko dantzaria Uruguaiako Ballet Nazionalaren zuzendari artistikoa da. Yebra bezala, Juan Carlos Santamaría koreografoak teknika klasikoa oinarri hartu zuen bere lanean. 2016an zenu zen. 2008an jasotako Spainiako Sari Nazionalak Santamaríak dantzaren alorrean egindako lanari aitortza egin zion.

Berrogeita hamar baino gehiago dira Europaren lanean diharduten edo azken urteotan aritu diren euskal dantzariak. Ameriketan, Asian eta Ozeanian ere badira zenbait, baina Europaren aritzen dira gehienak. Ander Zubala, Jone San Martín eta Amancio González Frankfurten daude, The Forsythe Companyn; Alicia Amatriain eta Oihane Herrero, Stuttgart Balleten; Asier Uriagereka, Beatriz Uhalte eta Asier Edo, Monte-Carlo Balleten; Iratxe Ansa eta Jorge Nozal, Nederlands Dans Theaterren; Amaya Lubeigt, Bremengo dantza-konpainian; Amaia Ugartetxe, Veronako Arenako Balleteko dantzaria da; Asier Orbelzu eta Sonia Setién, Vienako Balletekoak; Elvis Val, Hannoverreko Operako Balletean aritu da; Eneka Bordato Lyoneko Operako Balletean; Erick Odriozola

**26.** *Magifique*,  
Malandain  
Ballet Biarritz. dFERIA,  
Victoria Eugenia  
antzokia, Donostia,  
2010.

**26. Spectacle**  
*Magifique*, Malandain  
Ballet Biarritz. dFERIA,  
Théâtre Victoria  
Eugenia, Saint-  
Sébastien (Guipuscoa),  
2010.



Marseillan eta Alemanian ibili da; Iker Murillo Zurich Balleten aritu da; Ion Agirretxe Flandeseko Royal Balleten dantzatu da eta Espainiako Dantza Konpainia Nazionalean dihardu; Iñaki Azpillaga, Última Vez-Wim Vandekeybus konpainian; Iñaki Urrutia, Irlanda Balleten; Jaione Zabala, Nuremberg Balleten; Javier Amo eta Jon Beitia Fernández Municheko ballet-konpainian aritu dira; Jon Vallejo Dresdeko Operako ballet-konpainian ari da; Juan Kruz Diaz de Garaio Sasha Waltz & Guests konpainiako kidea da; Juanjo Rodríguez English National Balleten aritu da eta bertan ari da orain Aitor Arrieta; Julliete Villemín, Stuttgarten; Mikel Jauregi, Flandesen; Nerea Barañano, Danimarkako Operako ballet-konpainian; Verónica Villar, Wiesbadeneko ballet-konpainian; Cristina García Fonseca, Zaragozako La Mov konpainian; Marta Coronado, Belgikako Rosas konpainian; Liova Díez, BMK konpainian.

Zenbait euskal dantzari Europatik kanpoko dantza-konpainia profesionaletan ari dira. Iratxe Beorlegi Mexikoko Konpainia Nazionalean ari da; Jean Philippe Malaty-k Aspen Santa Fe Balleten egin du bere bidea. Ipar Amerikan, baita ere, Alfonso Martín Tulsa Ballet Theaterren dantzaria da. Japonian, berriz, K-Ballet Company-n aritu da Carlos Martín.

Aipatutako gehienak dantza klasikoan eta neoklasikoan nabarmendu diren dantzariak dira eta, nagusiki, estilo horretan aritzen diren antzoki publiko, opera-etxe, dantza-konpainia nazional eta dantza-konpainia pribatuetan ari dira. Horietako gehienetan dantza garaikidea indarrez sartu da azken hamarkadetan, eta dantzari gehienak estilo anitzetan lan egiteko prestatuta daude gaur egun.

Badira ordea, antzerki-dantza berrian ari direnak, eta antzoki eta egitura sendorik gabe konpainia txikietan eta malguetan ari direnak. Ikerketa eta sorkuntza, interpretazioa eta koreografia, lankidetza eta erresidentzia-denboraldiak uztartzen dituzte, baita joan-etorrian bizitzeko jarrera ere. Euskal Herrian ondo kostata bultzatzen eta zabaltzen dituzte euren dantza-lanak eta, ondorioz, oin bat atzerrian eta bestea etxean dituztela bizi dira. Mikel Aristegi, Damián Muñoz, Germán Jauregi, Eider Rodríguez, Iker Gómez, Jon Ugarriza, Idoia Zabaleta, Fabián Thomé, Eneko Balerdi eta Saioa Ibáñez dira horietako batzuk.

non-russe à interpréter Ivan le Terrible au Kremlin. Le danseur de Bilbao est le directeur artistique du Ballet national d'Uruguay.

À l'instar de Yebra, le chorégraphe Juan Carlos Santamaría adopta la technique classique comme base de son travail. Il est décédé en 2016. Le prix national d'Espagne reçu en 2008 fut une reconnaissance du travail réalisé par Santamaría dans le domaine de la danse. On recense plus de cinquante danseurs basques qui ont travaillé ou qui travaillent en Europe ces dernières années. Bien qu'il y en ait également en Amérique, en Asie et en Océanie, la plupart d'entre eux se trouvent sur le vieux continent : Ander Zabala, Jone San Martín et Amancio González ont intégré la Forsythe Company de Francfort ; Alicia Amatriain et Oihane Herrero, le Ballet de Stuttgart ; Asier Uriagereka, Beatriz Uharte et Asier Edeso, les Ballets de Monte Carlo ; Iratxe Ansa et Jorge Nozal, le Nederlands Dans Theater ; Amaya Lubeigt, la compagnie de danse de Brême ; Amaia Ugartetxe le Ballet de la Arena à Vérone ; Asier Orbelzu et Sonia Setién le Ballet de Vienne ; Elvis Val a dansé au Ballet de l'Opéra de Hanovre ; Eneka Bordato au Ballet de l'Opéra de Lyon ; Erick Odriozola a dansé à Marseille et en Allemagne ; Iker Murillo au Ballet de Zurich ; Ion Agirretxe, au Ballet royal de Flandre et fait partie de la Compagnie nationale de danse d'Espagne ; Iñaki Azpillaga a intégré la Compagnie Última Vez-Wim Vandekeybus ; Iñaki Urrutia le Ballet d'Irlande ; Jaione Zabala le Ballet de Nuremberg ; Javier Amo et Jon Beitia Fernández le Ballet de Munich ; Jon Vallejo le Ballet de l'Opéra de Dresde ; Juan Kruz Díaz de Garaio la compagnie Sacha Waltz & Guests ; Juanjo Rodríguez a dansé à l'English National Ballet, et Aitor Arrieta y danse actuellement ; Juliette Villemín a dansé Stuttgart ; Mikel Jauregi au Ballet royal de Flandres ; Nerea Barañano au sein du Ballet de l'Opéra du Danemark ; Verónica Villar au sein du Ballet de l'Opéra de Wiesbaden ; Cristina García Fonseca dans la Compagnie La Mov de Saragosse ; Marta Coronado, dans la Compagnie Rosas de Belgique et Liova Díez au sein de la BMK Company.

Certains danseurs basques se trouvent dans des compagnies professionnelles à l'extérieur de l'Europe. Iratxe Beorlegi travaille au sein de la Compagnie Nationale du Mexique et Jean Philippe Malaty a mené sa carrière au sein du Ballet Aspen Santa Fe. En Amérique du Nord, Alfonso Martín est danseur au sein du Tulsa Ballet Theater. D'autre part, Carlos Martín a dansé au K-Ballet Company, au Japon.

La plupart des danseurs cités se distinguent dans le monde de la danse classique ou néo-classique, et travaillent essentiellement dans des théâtres publics, opéras, compagnies de danse nationales et compagnie de danse privées. Dans la plupart de ces lieux, la danse contemporaine a fait progressivement son entrée au cours des dernières décennies, et la plupart des danseurs sont aujourd'hui formés pour pouvoir évoluer dans différents styles.

Toutefois, certains danseurs ont intégré de nouvelles compagnies de danse et de théâtre, réduites et souples, sans structure ni siège véritablement fixe. Ils conjuguent recherche et création, interprétation et chorégraphie, travail en équipe et saisons de résidence, ce qui suppose un mode de vie en perpétuel mouvement. Au Pays basque, ce n'est pas sans difficultés qu'ils font connaître et diffusent leurs travaux chorégraphiques, avec pour conséquence le fait d'avoir un pied à l'étranger et l'autre, à *la maison*. Mikel Aristegi, Damián Muñoz, Germán Jauregi, Eider Rodríguez, Iker Gómez, Jon Ugarriza, Idoia Zabaleta, Fabián Thomé, Eneko Balerdi et Saioa Ibáñez figurent parmi ces danseurs.

## Dantza-maitaleak

Euskal hiriren batek dantzaren aldeko apustu nabarmena egin badu, hori Biarritz da. Koreografia Zentro Nazionala sortu zuten bertan, 1998an, eta harekin batera Ballet Biarritz konpainia, gaur egun Malandain Ballet Biarritz izendapena duena. Izen ere, Thierry Malandain izan da zuzendaria sorreratik, eta bere eskutik ibilbide sendoa burutzen ari da. Balleta abiapuntu eta helburu ditu konpainiak. Malandainek hogeita hiru dantzari ditu bere esanetara. Ez da tamaina horretara hurbiltzen den beste euskal konpainiarik, hala ere, talde txikia da beste ballet-konpainien neurriarekin alderatuz. Irudimena, ausardia eta talentua baliatuz, nortasun berezia eman dio Malandainek Ballet Biarritzi.

Teknika neoklasikoan trebatuta, egungo eskema estetikoak eta aurkezpen-moduak darabiltza Biarritzeko konpainiak. Thierry Malandainek berak sortutako lanek osatzen dute konpainiaren errepertorioa. Dantzaren historiaren maitale handia izanik, lan klasikoen berrirakurketa ausartak egin ditu Malandainek. *Intxaurre-hauskailua* (1997), *Magifique* (2009), *Romeo eta Julieta* (2010) eta *Maria-Antonieta* (2019) moduko lanekin nazioarteko antzoki entzutetsuetan bere lana arrakastaz aurkezten ari da. Konpainiak Biarritzen ditu egoitza eta koreografia-zentroa, baina Donostiarekin mugaz gaindiko hitzarmena sinatua duenez, Malandain Ballet Biarritzen lanak batean zein bestean maiz ikus daitezke.

Biarritzek dantzarekin duen lotura estua Koreografia Zentro Nazionalarekin hasi, Malandain Ballet Biaritzekin segi eta *Maitaldia* dantza-jaialdiarekin borobiltzen da. Hogeita hamar jaialditik gora ospatu dira eta tarte horretan ballet konpainia ospetsuenak, abangoardiako talde ausartenak eta euskal konpainia nagusiak ikusi ahal izan dira Biarritzen. Irailean dantzaren aroa da Lapurdiko kostaldeko hirian, eta dagoeneko dantza ikusi eta dantzarekin gozatzeko ohiturak errotu dira bertan.

Biarritzen erditu eta Donostian hazi eta burujabetu zen Dantzaz konpainiak nortasun propioa landu du azken urteotan. Ballet Biarritzen babesean sortu zen, dantzari gazteak babesteko asmoarekin, baina soka askatu, eta Gipuzkoako Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesaz, ibilbide propioa egiten ari da. Adriana Pous-en zuzendaritzapean, nazioarteko eta Euskal Herriko dantzari gazteak batu dira konpainiara. Dantzaz konpainia dantza garaikideko erreptorioa jorratzen ari da. Itzik Galili edo Eric Gauthier ibilbide sendoko koreografoen lanekin, Lukas Timulak moduko sortzaile gazteen eta ausarten proposamenekin eta Hilde Koch eta Jone San Martín euskal dantzari eta koreografia-laguntzaile nabarmenen ekarpenekin, Dantzaz konpainiak dantza-programa erakargarriak plazaratu ditu. Euskal dantzazaleak sustatu eta dantzarekin gozaraztea dute helburu. Halaber, ahalegin berezia egiten dute beren ikuskizunak herriz herri eskaini eta dantza garaikidea euskal lurrarde osora eramateko.

## Amoureux de la danse

S'il existe une ville basque qui a clairement fait le pari de la danse, c'est bien Biarritz (Labourd). C'est là qu'en 1998 fut implanté le Centre Chorégraphique National, ainsi que la compagnie Ballet Biarritz, qui s'appelle maintenant Malandain Ballet Biarritz. Depuis sa création, c'est le chorégraphe Thierry Malandain qui a présidé aux destinées de cet établissement, lui permettant d'accomplir un parcours sans faute. Le ballet est à la fois le point de départ et l'objectif de cette compagnie, et Malandain compte sous ses ordres 23 danseurs. Même si cela paraît peu en comparaison avec d'autres corps de ballet, aucune autre compagnie basque n'atteint ce nombre. Faisant montre d'imagination, d'audace et de talent, Thierry Malandain a donné à Ballet Biarritz une personnalité propre. Formée à la technique néo-classique, la compagnie recourt aux modèles esthétiques et aux mises en scène actuels. Le répertoire de la compagnie est constitué des travaux créés par Thierry Malandain lui-même.

Grand amoureux de l'histoire de la danse, Malandain a revisité avec audace certaines œuvres classiques, et présenté avec succès des créations comme *Casse-Noisette* (1997), *Magifique* (2009), *Roméo et Juliette* (2010) et *Marie-Antoinette* (2019) sur des scènes internationales de renom. La compagnie a son siège et son centre chorégraphique à Biarritz, mais elle a également signé un accord transfrontalier avec Saint-Sébastien, afin que les travaux du chorégraphe puissent être proposés régulièrement des deux côtés de la frontière.

Le lien étroit qui unit Biarritz à la danse est né avec la création du Centre National de Chorégraphie, s'est poursuivi avec le Malandain Ballet Biarritz, et trouve son apogée avec le festival de danse *Le Temps d'Aimer*. Plus de trente éditions ont déjà été organisées, et durant cette période, les compagnies de danse les plus illustres sur le plan international, les propositions avant-gardistes les plus innovantes, ainsi que les principales compagnies basques sont passées par Biarritz. Septembre marque la saison de la danse dans cette ville côtière du Labourd, dans laquelle une certaine tradition d'amour de la danse s'est véritablement enracinée.

La compagnie Dantzaz, qui a vu le jour à Biarritz et s'est développée à Saint-Sébastien, a affirmé son identité propre au cours de ces dernières années. Crée dans le giron de Ballet Biarritz, dans le but de former de jeunes danseurs, elle a largué les amarres et, avec l'appui de la Députation du Guipuscoa et du Gouvernement basque, a consolidé son propre projet. Sous la direction d'Adriana Pous de jeunes danseurs basques et internationaux ont rejoint la compagnie. Le travail de la compagnie Dantzaz consiste à explorer le répertoire de danse contemporaine. Grâce aux travaux de chorégraphes au solide parcours comme Itzik Galili ou Eric Gauthier, aux propositions de jeunes créateurs audacieux comme Lukas Timulak, et aux contributions de ballerines et assistantes chorégraphes basques comme Hilde Koch ou Jone San Martín, la compagnie Dantzaz a présenté récemment de remarquables programmes de danse. Son objectif est d'encourager l'intérêt pour la danse basque, et de donner à connaître la danse. Pour cela, elle s'efforce de présenter ses spectacles de ville en ville, et de diffuser la danse contemporaine à travers tout le territoire basque.



27

## Sortzaile glokalak

Berrogei urtetik gora dira euskal dantza garaikidearen aitzindariekin lehen ahaleginak eta lehen joan-etorriak egin zituztela. 1960ko hamarkada bukaeran José Lainez eta Concha Martínez bide-erakusleak izan ziren eta ordura arte Euskal Herrian arrotzak ziren dantzaren forma berriak landu zituzten. Herbeheretako Het National Balleten aritu ziren dantzaren, eta Donostian Anexa dantza garaikideko taldea sortu zuten. Anexa taldearen bidez dantza garaikidearen lurra goldatu zuten, eta haien eragindako olatuak hainbat dantzari eta irakasle dantzan jarri zituen; besteari, Iñaki Landa, Julio Durán, Mentxu Medel, Mentxu Alkorta, Javier Legorburu, Katxua eta Ana Moreno dantzari buru-belerri lotu zitzazkion. Iruñera aldatuta, Laineztarrek Yauskari taldea sortu zuten. Iparraldean, Mizel Théret-ek Ekarle konpainia eratu eta dantza garaikidearen alorrean gaurdaino jarraitu duen sorkuntza-ibilbide luzeari ekin zion.

Ondotik etorri diren gehienek kanpora jo dute ikastera eta, dinamika profesionalaletan hasi direnean, batetik bestera ibiltzera ohiu dira. Badira operazio-basea Euskal Herrian ezartzea erabaki dutenak, nahiz eta jakin dantza-sorkuntzak eta -hedapenak erakunde, programatzale, komunikabide eta ikusleen aldetik babes urria duela. Egoitza etxeen izan arren, eserleku finkorik gabekoa da eta, beraz, atzerrira joan eta etxera itzultzen jarraitu dute; ikasten, ikusten, konpartitzen, irakasten eta desikasten. Eta, aldi berean, emanaldiak eskaintzen, saltzen eta, Euskal Herrian jarraitu ahal izateko, ogia nola edo hala irabazten. Beste

**27.** Itzik Galiliren *Things I Told Nobody* ikuskizunaren pasarte, Dantza konpainia. Donostia, 2013.  
**28.** NAN, Ertza konpainia. Gasteszena antzokia, Donostia, 2013.

- 27.** Extrait du spectacle *Things I Told Nobody* d'Itzik Galili, Compagnie Dantzaz. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 2013.  
**28.** Spectacle NAN, Compagnie Ertza. Salle Gasteszena, Saint-Sébastien, 2013.

Plus de quarante ans se sont écoulés depuis les premiers pas des pionniers de la danse contemporaine basque. À la fin des années 1960, José Lainez et Concha Martínez ouvrirent de nouvelles voies avec des langages dansés jusqu'alors inconnus au Pays basque. Après avoir dansé au sein du Het National Ballet des Pays-Bas, ils créèrent le groupe de danse contemporaine Anexa à Saint-Sébastien. Par le biais de ce groupe, ils explorèrent le terrain de la danse contemporaine et lancèrent de nombreux danseurs et enseignants : Iñaki Landa, Julio Durán, Mentxu Medel, Mentxu Alkorta, Javier Legorburu, Katxua ou Ana Moreno, notamment, participèrent à leur travail. À Pampelune, les Lainez fondèrent le groupe Yauskari. Dans la province du Labourd, Mizel Théret fonda la compagnie Ekarle et entama un long parcours dans l'univers de la danse contemporaine, qui se poursuit encore aujourd'hui.

La plupart de ceux qui ont suivi leurs traces ont dû partir se former à l'étranger. Au moment d'entamer une carrière professionnelle, ils ont été contraints de continuer à voyager. Certains ont décidé de se baser au Pays basque, malgré le peu d'intérêt manifesté tant par les institutions, que les promoteurs de spectacles, les médias et les spectateurs, vis-à-vis de la création et de la diffusion dans le champ de la danse. Ils ont leur siège au pays, mais pas de véritable assise, ce qui les constraint à devoir se rendre fréquemment à l'étranger et à revenir à *la maison*, de manière intermittente;



28



29

zenbaitek bidea, harremanak, lankideak zein proiektuak atzerrian dituzte, baina bihotzak etxera ekartzen ditu eta ustez kontrako bidea egiten saiatzen dira.

Damián Muñoz gasteiztarra Bartzelonan du egoitza 2010. urte ingurutik eta, Virginia Garcíarekin batera, bere lan gehienak han produzitu ditu. Muñozek, 1995ean bere konpainia sortu zuen etik, giza harremanak malenkoniaz dantzatzuz ibilbide artistiko sakona borobildu du. Traspasos dantza-konpainian eman zituen lehen urratsak eta ondoren Puertas Abiertas eta Moaré konpainietan jardun zuen. Virginia Garcíarekin sortu zuen La Intrusa konpainiarekin emanaldiak egin ditu hogeita bost herrialdetan.

Mikel Aristegi, Donostiara maiz itzultzen bada ere, Alemanian bizi da aspaldian. Dantza garaikideko ikasketak Essen-en egin, eta Alemanian jardun du nagusiki, baina Sutzan, Italian eta Euskal Herrian ere egin ditu koreografia-lanak. Aristegi Sasha Waltz nazioarteko sortzaile entzute-tsuarekin dantzari- eta koreografo-lanetan aritu da.

Asier Zabaletak joan-etorriko ibilbidea egin du. Ezkioko dantzariak Adeshoras eta Hojarasca moduko konpainietan dantzatu ondoren, Sutzara jo eta 1999-2004 bitartean Alias konpainiarekin jardun zuen dantzari- eta sorkuntza-lanetan. Ondoren, Euskal Herriko itzuli eta Ertza konpainia sortu zuen non produkzio pertsonal sendoa garatu duen. Zabaleta euskal dantza garaikidearen nahitaezko erreferentzia bihurtu da.

**29.** *NOW*, LASALA konpainia. 2016.

**29.** Spectacle *NOW*, Compagnie LASALA. 2016.

ils continuent à apprendre et à désapprendre, à observer, à partager, à enseigner. En même temps ils ont continué à proposer des spectacles de manière à gagner leur vie tant bien que mal, pour pouvoir continuer à travailler au Pays basque. D'autres mènent leur carrière à l'étranger où ils ont des contacts, des relations, des collègues de travail et des projets. Mais leur cœur les ramène au pays et ils s'efforcent de mener une carrière qui va à l'encontre de ce qu'ils avaient imaginé.

Damián Muñoz, originaire de Vitoria-Gasteiz, s'est établi à Barcelone dans les années 2010, et c'est dans cette ville qu'il a réalisé la plupart de ses travaux, conjointement avec Virginia García. Depuis qu'il a fondé sa compagnie, en 1995, Muñoz a effectué un parcours artistique remarquable, interprétant avec une grande sensibilité les relations humaines. Il a fait ses premiers pas au sein de la compagnie de danse Traspasos, puis intégré les compagnies Puertas Abiertas et Moare. Il a créé, avec Virginia García, La Intrusa, une compagnie qui a donné des représentations dans 25 pays.

Bien qu'il revienne fréquemment à Saint-Sébastien, Mikel Aristegi vit depuis longtemps en Allemagne. Il s'est formé à la danse contemporaine à Essen et a travaillé principalement en Allemagne, mais il a également travaillé sur des œuvres chorégraphiques en Suisse, en Italie et au Pays basque. Aristegi a travaillé comme danseur et chorégraphe pour la célèbre créatrice Sasha Waltz.

Asier Zabaleta a beaucoup voyagé au cours de sa carrière. Le danseur d'Ezkio (Guipuscoa) s'est produit dans des compagnies comme Adeshoras et Hojarasca, puis s'est établi en Suisse entre 1999 et 2004, pour travailler au sein de la compagnie Alias en tant que danseur et créateur. Il est ensuite revenu au Pays basque où il a fondé la compagnie Ertza et avec laquelle il a réalisé une production personnelle remarquable. Zabaleta est maintenant une référence incontournable de la danse contemporaine basque.

Idoia Zabaleta, originaire de Vitoria-Gasteiz, s'est formée à la nouvelle danse et à l'improvisation à Barcelone, Amsterdam et New York. Elle a dansé avec la compagnie Mal Pelo et a fondé sa propre compagnie Moare, où elle travaille en tant que créatrice. Elle est diplômée en biologie et s'intéresse aux domaines multidisciplinaires et aux travaux de création basés sur l'interaction entre artistes. En 2008, elle a créé le centre de recherche scénique Azala avec Juan González, et depuis elle gère le centre de promotion et de diffusion. Elle travaille sur différents projets avec des créateurs internationaux et présente ses œuvres partout.

Pour Ion Muanduate, le corps est, avec les autres matériaux et installations, un outil pour la création artistique. Il s'est formé à la danse notamment à Paris, en Belgique, et à Londres, et il travaille essentiellement dans le domaine de la recherche sur la vidéo et la performance artistique. Il a dirigé le programme Mugatxoan à Arteleku, avec Blanca Calvo.

Matxalen Bilbao est une créatrice qui se base sur le corps-même pour développer ses projets chorégraphiques ; elle réside à Bilbao. Elle a recours à une esthétique soignée et des musiques nouvelles pour mettre son corps en mouvement.

Pour sa part, Blanca Arrieta, originaire de Vitoria-Gasteiz, cherche à exploiter toutes les ressources qu'offre le corps afin de s'exprimer. Elle a créé plusieurs œuvres importantes avec sa compagnie Ciento Cincuenta Cuerdas et la compagnie Irish Modern Dance.

Natalia Monge développe son travail chorégraphique par le biais du groupe Organik. Ses créations intègrent provocation et humour. La

Idoia Zabaleta gasteitzarrak dantza berria eta inprobisazioa ikasi zituen Bartzelonan, Amsterdamen eta New Yorken. Mal Pelo konpainiarekin aritu zen dantzaren eta, ondoren, Moare bere konpainiarekin sorkuntzan buru-belarri dihardu. Biologian lizenziatua da; diziplinarteko eta artisten artean interakzioa eta sorkunta-lanak sustatu ditu. 2008an, Juan Gonzálezekin batera, Azala eszena ikerketa-gunea sortu zuen eta, ordutik, gunea kudeatzen du. Nazioarteko hainbat sortzailerekin dituen proiektuak tarteko, han eta hemen aurkezten ditu bere lanak.

Gorputza, bestelako materialekin eta instalazioekin batera, arte-sorkuntzarako tresna da Ion Munduaterentzat. Parisen, Belgikan eta Londresen, besteak beste, trebatu zen dantzaren. Batik bat bideoaren eta performancearen alorrean ikerketa- eta ekarpenean lanetan dabil. Mugatxoan programa kudeatu zuen Artelekun Blanca Calvorekin batera. Matxalen Bilbao sorkuntzarako oinarria gorputzean bertan jartzen duen koreografoa da; egoitza Bilbon du. Estetika zaindua eta musika berriak baliatzen ditu bere gorputza dantzaren jartzeko. Blanca Arrieta gasteitzarrak, berriz, gorputzak komunikatzeko dituen baliabide guztiak ustiatzeko xedea du, eta Ciento Cincuenta Cuerdas bere konpainiarekin eta Irish Modern Dance konpainiarekin elkarlanean zenbait lan nabarmen egin ditu. Organik taldearen bidez plazaratzen ditu Natalia Mongek bere lanak. Probokazioa eta umorea darie bere sorkuntzei. Pantxika Telleria lapurtarrak Elirale konpainiarekin helduentzako eta umeentzako lanak sortu ditu; halaber, euskal dantzaren tradiziozko sistemak ulertu eta ikuspegi garaikidez birsotzeko saiakerak egin ditu.

Iker Gómez antzerki fisikoa deritzana jorratuz ezagutzen ematen ari da. Suitzako Ballet Nacional, Alemaniako Resenzurg Tanztheater eta Katalunian Gellabert-Azzopardi konpainietan aritu da. Bere lanetan eszena-zuzendaritza, koreografia eta ikus-entzunezko sormenak uztartu ohi ditu eta, dadaismotik eta dantza klasikotik abiatuz, dantza fisikoa eta ikus-entzunezkoak barne biltzen dituzten sorkuntzak plazaratzen ditu. Egungo estetikaz jantxitako gorputz-hizkuntza fisikoa darabil Judith Argomanizek Lasala konpainian. Igor Calongek eszena-proposamen berritzaleak eginez ibilbide artistiko berriak sustatzea du helburu Cielo Raso konpainiaren bidez. Eva Guerrerok, bere aldetik, dantza, antzerkia, bideo-dantza, performance eta narratiba berrien eremuan, gorputzetik abiatzen den sorkuntzaren alorrean dihardu Doos kolektiboan. Olatz de Andrés, berriz, Lökke konpainiarekin proiektu koreografikoetan eta pedagogikoetan aritzen da dantza eta mugimendua tresna nagusi dituela.

**30.** *The Big Game*,  
Lökke konpainia. 2018.

**30.** *The Big Game*.  
Compagnie Lökke.  
2018.

danseuse et chorégraphe labourdine Pantxika Telleria a créé des œuvres pour adultes et pour enfants avec la compagnie Elirale, et a tenté de comprendre les systèmes traditionnels de la danse basque et de le recréer à partir d'un point de vue contemporain.

Iker Gómez est un artiste visuel qui se fait connaître en évoluant dans le champ du théâtre physique. Il s'est produit au Ballet National Suisse, au Resenzurg Tanztheater d'Allemagne, et à la compagnie catalane Gellabert-Azzopardi. Dans son travail il marie la mise en scène, la chorégraphie et la création audiovisuelle. Partant du dadaïsme et de la danse classique, Gómez intercale danse physique et éléments audiovisuels. Judith Argomaniz pratique, dans la compagnie Lasala, un langage corporel physique accompagné de l'esthétique actuelle. Igor Calonge a pour but de promouvoir de nouveaux chemins artistiques par le biais de propositions scéniques innovantes dans la compagnie Cielo Raso. Eva Guerrero, quant à elle, travaille dans la création axée sur la danse, le théâtre, la vidéo-danse, la performance, les nouveaux récits et le corps, au sein du collectif Doos. Olatz de Andrés, travaille sur les projets chorégraphiques et pédagogiques dans la compagnie Lökke, avec la danse et le mouvement comme outils principaux.



## TOKIAN TOKIKO DANTZA TRADIZIONALA

### OTSAILA - MARTXOA - APIRILA

- Otsailak 3, San Blas:** txulalai Guardian.
- Otsaila, martxo eta apirileko larunbatetan eta igandeetan:** maskaradak Zuberoan.
- Igande inaute:** talai-dantza Amezketan, txantxo-dantza Abaltzisketan, zahagi-dantza Markina-Xemeinen, sorgin-dantza Antzuolan, kaskarotak Uztaritzen.
- Astearte inaute:** zortzikoa Lantzen, sagar-dantza Arizkunen, momotxorroak Altsasun.
- Pazko igandea:** bolantak Luzaiden.

### MAIATZA

- Maiatzak 3, Santikutz:** ezpata-dantza Legazpin.
- Maiatzak 15, San Trokaz:** dantzari-dantza eta erregelak Abadiñon.
- Asenzió:** Loinazko San Martinen ezpata-dantza Beasainen.

### EKAINA

- Corpus:** Corpus dantzak Oñatin, Bestaberri Heletan.
- Ekainak 23:** soka-dantza Donostian, Zarautzen, Irunen; San Juanen kantaita Urdiainen.
- Ekainak 24, San Joan:** bordon-dantza Tolosan, dantzak Guardian, mutil-dantzak Arizkunen, axeri-dantza Andoainen.
- Ekainak 29, San Pedro:** dantzari-dantza eta erregelak Berrizen, kaxarranka eta Donibaneko aurrekua Lekeition, trapatan Donezteben.

### UZTAILA

- Uztailak 2, Santa Isabel:** ezpata-dantza Antion, Zumarragan.
- Uztailak 4:** aurrekua Hermua-Larrean.
- Uztailak 7, San Fermín:** ezpata-dantza Lesakan.
- Uztailak 16, Karmen:** ezpata-dantza, brokel-dantza eta soka-dantza Añorgan.
- Uztaleko hirugarren larunbata:** mairuaren alardea eta trokeo-dantzak Antzuolan.
- Uztailak 26, Santa Ana:** santaneroen esku-dantza Ordizian.

### ABUZTUA

- Abuztuak 3, San Esteban:** bordon-dantza eta makil-dantzak Beran.
- Abuztuak 5, Ama Birjina zuria:** arku-dantza Lanestosan, zortzikoa Gasteizen.

## DANSES TRADITIONNELLES LOCALES

### FÉVRIER - MARS - AVRIL

- Le 3, Saint Blaise :** *txulalai* à Laguardia (Alava).
- Dimanches et samedis de février, mars, avril :** *Mascarades en Soule*.
- Dimanche gras :** *talai-dantza* à Amezketa (Guipuscoa), *txantxo-dantza* à Abaltzisketa (Guipuscoa), *zahagi-dantza* à Markina-Xemein (Biscaye), *sorgin-dantza* à Antzuola (Guipuscoa), *kaskarotak* à Uztaritze (Labourd).
- Mardi gras :** *zortzikoa* à Lantz (Navarre), *sagar-dantza* à Arizkun (Navarre), *momotxorroak* à Altsasu (Navarre).
- Dimanche de Pâques :** *bolantak* à Luzaide (Navarre).

### MAI

- Le 3, Sainte Croix :** *ezpata-dantza* à Legazpi (Guipuscoa).
- Le 15, Saint Torquat :** *dantzari-dantza* et *erregelak* à Abadiño (Biscaye).
- Ascension :** *Ezpata-dantza* à San Martin de Loinaz, Beasain (Guipuscoa).

### JUIN

- Fête-Dieu :** Danses de la Fête-Dieu (ou du Corps du Christ) à Oñati (Guipuscoa), *Bestaberri* à Heleta (Labourd).
- Le 23 :** *Gizon-dantza* à Saint-Sébastien, Zarautz and Irun (Guipuscoa); *kantaita* de la Saint Jean à Urdiain (Navarre).
- Le 24, Saint Jean :** *Bordon-dantza* à Tolosa (Guipuscoa), *Danses à Guardia* (Alava), *mutil-dantzak* à Arizkun (Navarre), *axeri-dantza* à Andoain (Guipuscoa).
- Le 29, Saint Pierre :** *dantzari-dantza* eta *erregelak* à Berri (Biscaye), *kaxarranka* et *aurrekua* de San Juan à Lekeitio (Biscaye), *trapatan* à Doneztebe (Navarre).

### JUILLET

- Le 2, Sainte Isabelle :** *ezpata-dantza* à Antio, Zumarraga (Guipuscoa).
- Le 4 :** *aurrekua* à Hermua-Larrea (Guipuscoa).
- Le 7, Saint Firmin (San Fermín) :** *ezpata-dantza* à Lesaka (Navarre).
- Le 16, Sainte Carmen :** *ezpata-dantza, brokel-dantza* et *soka-dantza* à Añorga (Guipuscoa).
- Le 3e samedi de juillet :** *parade de Mairu* et *trokeo-dantzak* à Antzuola (Guipuscoa).
- Le 26, Sainte Anne :** *esku-dantza des santaneros* à Ordizia (Guipuscoa).

### AOÛT

- Le 3, Saint Étienne :** *bordon-dantza* et *makil-dantzak* à Bera (Navarre).
- Le 5, Fête mariale :** Danse des arceaux à Lanestosa (Biscaye), *zortzikoa* à Vitoria-Gasteiz.
- Le 10, Saint Laurent :** Danses de Saint Jean à Berastegi (Guipuscoa), Danses de Saint Laurent à Pampelune.

- **Abuztuak 10, San Lorentzo:** San Juan dantzak Berastegin, San Lorentzo dantzak Iruñean.
- **Abuztuak 11, San Tiburtzio:** ezpata-dantza eta ingurutxoa Leitzan.
- **Abuztuak 15, Ama Birjina:** ezpata-dantza eta aurreskua Begoñan, Bilbon.
- **Abuztuak 16, San Roke:** San Roke dantza Deban.
- **Abuztuak 24, San Bartolome:** soka-dantza Elgoibarren.

## IRAILA

- **Irailek 8, Ama Birjina:** dantzari-dantza Izurtzan, Muskildako Ama Birjinaren dantzak Otsagabian, Arrateko Amaren dantzak Eibarren.
- **Irailek 29, San Migel:** dantzari-dantza lurretan, ezpata-dantza Markina-Xemeinen, paloteadoa Cortesen.
- **Iraileko azken asteburua:** Aldapako San Ferminen ezpata-dantza Iruñean.

## URRIA

- **Urriko lehen igandea:** Errebonbiloen aurreskua Elorrion, ingurutxoa Amezketan, gorulariak lurretan.

## DANTZA TRADIZIONALEN JAIALDIAK

- **Iruña-Eibar:** Ezpalak Dantza Tradizionalaren Nazioarteko Jaialdia (maiatzeko azken asteburua).
- **Donostia:** Lauarin Nazioarteko Folklore Jaialdia (ekaineko laugarren asteburuan).
- **Portugalete:** Nazioarteko Folklore Jaialdia (uztaileko laugarren astean).
- **Galdakao:** Folklore Bizian Nazioarteko Folklore Jaialdia (uztaileko hirugarren astean).
- **Irun:** Bidasoaldeko Gazteen Nazioarteko Folklore Jaialdia (uztaileko hirugarren astean).

## BALLET- ETA DANTZA-JAIALDIAK

- **Biarritz:** Maitaldia (irailean).
- **Bilbo:** Dantzaldia (udazkenean).
- **Donostia, Irun, Erreenteria, Baiona:** Dantza Hirian (irailean).
- **Bilbo:** Lekuz leku (ekainean).

## DANTZALDI IREKIAK

- **Iruña, Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Baionako jaietan.**
- **Durango:** Dantzaldi Ibiltaria.
- Patxi eta Konpainia, Aiko taldea, Errebal, Herrixa Dantzan.
- **Gasteiz:** Dantza Plazan, maiatzetik urrira bitarteko asteburuuetan eta Ilunabarrean dantzan Oihanederen.
- **Bilbo:** Urbeltzen Dantza Ganbara, Kafe Antzokian, hileko lehen asteazkenetan.

- **Le 11, Saint Tiburce :** ezpata-dantza et ingurutxo à Leitza (Navarre).
- **Le 15, Assumption :** ezpata-dantza et aurreskua à Begoña, Bilbao.
- **Le 16, Saint Roch :** Danse de Saint Roch à Deba (Guipuscoa).
- **Le 24, Saint Barthélémy :** soka-dantza à Elgoibar (Guipuscoa).

## SEPTEMBRE

- **Le 8, Fête mariale :** dantzari-dantza à Izurtza (Biscaye), Danses de Notre Dame de Muskilda à Otsagabia (Navarre), Danses de Notre Dame de Arrate à Eibar (Guipuscoa).
- **Le 29, Saint Michel :** dantzari-dantza àurreta et ezpata-dantza à Markina-Xemein (Biscaye), paloteado à Cortes (Navarre).
- **Dernier week-end de septembre :** Ezpata-dantza de San Fermin de Aldapa à Pampelune.

## OCTOBRE

- **Premier dimanche d'octobre :** Aurresku des rebombillos d'Elorrio (Biscaye), ingurutxo à Amezketa (Guipuscoa), gorulariak àurreta (Biscaye).

## FESTIVALS DE DANSE TRADITIONNELLE

- **Pampelune et Eibar (Guipuscoa) :** Festival international de danses traditionnelles Ezpalak (dernier week-end de mai).
- **Saint-Sébastien (Guipuscoa) :** Festival international de folklore Lauarin (4e week-end de juin).
- **Portugalete (Biscaye) :** Festival international de folklore (4e semaine de juillet).
- **Galdakao (Biscaye) :** Festival international de folklore Folklore Bizian (3e semaine de juillet).
- **Irun (Guipuscoa) :** Festival international de jeune folklore de la Bidassoa (3e semaine de juillet).

## FESTIVALS DE BALLET ET DANSE

- **Biarritz (Lapurdi):** Maitaldia - Le Temps d'Aimer la Danse (September).
- **Bilbao:** Dantzaldia (Autumn).
- **San Sebastian, Irun and Erreenteria (Gipuzkoa) and Bayonne:** Dantza Hirian (September).
- **Bilbao:** Lekuz leku (June).

## BALS

- Pendant les fêtes de **Pampelune, Vitoria-Gasteiz, Bilbao, Saint-Sébastien et Bayonne.**
- **Durango (Biscaye) :** Bal itinérant.
- Sessions de danse avec les groupes Patxi eta Konpainia, Aiko, Errebal, Herrixa Dantzan.
- **Vitoria-Gasteiz :** Dantza Plazan (week-ends de mai à octobre), et Ilunabarrean dantzan à Oihaneder.
- **Bilbao :** Urbeltzen Dantza Ganbara au Kafe Antzokia (les premiers mercredis de chaque mois).

# Bibliografia laburra

## Bibliographie courte

### SAREAN / EN LIGNE

- Aranburu Urtasun, Mikel (2000): *Danzas y bailes de Navarra*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
  - Bidador, Joxemiel (2005): *Dantzaren erreforma Euskal Herrian*. Bilbo: Bilboko Udala, Kultura eta Euskara Saila.
  - Bikandi, Sabin (2009): *Alejandro Aldekoa: Master of Pipe and Tabor Dance Music in the Basque Country*. Reno: Center for Basque Studies - University of Nevada.
  - Fernández de Larrinoa, Kepa (1998): *Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional e identidad social*. Pamplona: Pamiela.
  - Fernández de Larrinoa, Kepa (2003): *Calendario de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco* (Kepa Fdez. De Larrinoa, dirección y estudio preliminar). Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco.
  - Guilcher, Jean-Michel (1984) : *La tradition de danse en Béarn et Pays basque français*. Paris : La Maison des sciences d'homme.
  - Irigoien, Iñaki (1985): *La danza en el País Vasco*. Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína.
  - Itzaina, Xabier (2002) : "Danse et chant en Pays Basque nord", in Denis Laborde (dir.), *Kantuketan, l'univers du chant basque*, (209-252 orr.). Bayonne-Saint-Sébastien : Elkar, Institut Culturel Basque.
  - Sagaseta, Migel Angel (2011): *Luzaireko dantzak*. Bilbo: Herritar Berri-Astero/Baigorri-Gara.
  - Truffaut, Thierry (1981) : "La danse en Labourd" in *La danse basque*. Bidart : Lauburu.
  - Urbelz, Juan Antonio (1978): *Dantzak. Notas sobre las danzas tradicionales de los Vascos*. Bilbao: Caja Laboral.
  - Urbelz, Juan Antonio (2001): *Danza vasca. Aproximación a los símbolos*. Lasarte-Oria: Etor-Ostoia.
- <http://dantzan.eus>  
Dantzaren inguruko albisteak  
Informations sur la danse
  - <http://www.dantzatlas.navarchivo.com>  
Nafarroako dantzen atlaza  
Atlas des danses de Navarre
  - <https://dantzagune.eus>  
Euskal Dantzarien Biltzarra
  - <http://addedantza.org>  
Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartea  
Association des Professionnels de la Danse du Pays Basque
  - <https://www.eke.eus/eu/kultura/dantza>  
Euskal Kultur Erakundea
  - <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/dantzagunea/>  
Gipuzkoako Dantzagunea



## Oier Araolaza Arrieta (Elgoibar, Gipuzkoa, 1972)

Dantzaria da. *Dantzan.eus* atariaren sortzailea eta editorea da. Kezka eta Argia dantzari taldeetan aritzen da dantzari. Antropologian eta Informazio Zientzietan lizentziatua, Musikologian egin ditu doktorego ikastaroak eta euskal dantza eta genero-identitatea aztertu ditu, 2020an, Gizarte Komunikazioa sailean, UPV / EHUn, defendatu duen doktorego-tesian. Dantzan Ikasi programa abiato du, UPV/EHUn euskal dantzari buruzko ikasketan saioak eskaini ditu eta Dantzertin, Euskadiko Arte Dramatikoa eta Dantzaren Goi Mailako Eskolan, euskal dantza irakaslea izan da. Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Kontseiluko kidea da 2010etik.

Oier Araolaza Arrieta est danseur. Il a créé le site internet *dantzan.eus* dont il est l'éditeur. Il danse au sein des groupes Kezka et Argia. Il a suivi des études de journalisme et d'anthropologie, a fait un doctorat en musicologie et il a soutenu une thèse en 2020 sur la danse basque et l'identité de genre dans le cursus de Communication sociale de l'Université UPV/EHU. Il a lancé le programme Dantzan Ikasi, il a dispensé des cours de danses basques à l'UPV/EHU, et a été professeur de danse basque à Dantzerti, l'École supérieure des arts dramatiques et de danse d'Euskadi. Il est membre du Conseil basque de la culture du Gouvernement basque depuis 2010.

## KREDITUAK / CRÉDITS

### Euskal Kultura sailaren edizioa Édition de la Collection Culture Basque

Etxepare Euskal Institutua

### Testua / Texte

Oier Araolaza Arrieta CC BY-SA

### Frantsesezko itzulpena

### Traduction française

Joana Pochelu

### Edizioa / Édition

Miriam Luki Albisua

### Maketazioa / Mise en page

Infotres

### Diseinua / Conception

Mito.eus

### Azaleko argazkia / Photo de couverture

Ekaitz Zilarmendi

## Argazkiak / Photos


1. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
2. Bligh Barker eta Sydney Crocker. Zumalakarregi Museoa. Gipuzkoako Foru Aldundia / Bligh Barker et Sydney Crocker. Musée Zumalakarregi. Députation du Guipuscoa. CC BY-NC-SA 2.5 ES.
3. Christoph Weiditz, 1529. Alemaniako Museo Nazionala / Musée National Allemand. CC BY-NC-SA.
4. Indalecio Ojanguren. Guregipuzko.eus CC-BY-SA.
5. Vicente Martín. Kutxateka CC BY-SA.
6. Amauri Aristi – Dantzan.eus CC BY-SA.
7. Oier Araolaza – Dantzan.eus CC BY-SA.
8. Eire Vila – Dantzan.eus CC BY-SA.
9. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
10. Jokin Artola – Dantzan.eus CC BY-SA.
11. © Cristian Martinez – EKE.
12. Maite Eizagirre.
13. Amauri Aristi – Dantzan.eus CC BY-SA.
14. Oier Araolaza – Dantzan.eus CC BY-SA.
15. Felipe Loyola – Dantzan.eus CC BY-SA.
16. Oier Araolaza – Dantzan.eus CC BY-SA.
17. Gorka Bravo.
18. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
19. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
20. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
21. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
22. Eire Vila – Dantzan.eus CC BY-SA.
23. David Herraz.
24. Gorka Bravo.
25. Andrej Uspenski.
26. Gorka Bravo.
27. José Usoz.
28. Gorka Bravo.
29. Jan Pol.
30. Jesus Robisco.

## **Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua nazioartean euskara, euskal kultura eta sorkuntza sustatzea eta ezagutzera ematea da, eta, horien esku, beste herrialdeekin eta kulturekin harreman iraunkorrik eraikitza. Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditugu, eta sortzaile, artista nahiz kultura sektoreetako profesionalen mugikortasuna errazten dugu, baita euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragile kulturalekin eta akademikoekin elkarlana bultzatzen dugu. Zeregin horietan guztietan Euskadiko kanpo ordezkaritzak gertuko bidelagun ditugu.

## **Institut Basque Etxepare**

L’Institut Basque Etxepare est une entité publique dont l’ambition est de promouvoir et de faire connaître la langue, la culture et la création basques à l’international et de construire à travers elles des relations durables avec d’autres pays et cultures. Pour ce faire, nous encourageons des activités artistiques de qualité et favorisons la mobilité des créateurs et créatrices, des artistes et des professionnels des secteurs culturels, ainsi que l’enseignement de la langue et de la culture basques. Nous promouvons également la collaboration avec des acteurs internationaux des domaines culturel et universitaire. Nous travaillons sur tous ces aspects en étroite collaboration avec les délégations de la Communauté Autonome Basque à l’étranger.





BASQUECULTURE.EUS  
THE GATEWAY  
TO BASQUE CREATIVITY  
AND CULTURE

# BASQUE.

Europarrok kultura-ondare oparoa partekatzen dugu, mendeetan zehar izan ditugun trukeen eta migrazio-fluxuen ondorioa dena. Hala, bertako hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, berezi egiten gaituen horri esker guztiok joritua, Europak duen balio handienetako bat da. BASQUE. Iurralde baten isla da (euskararen Iurraldearena), historia baten isla, mundua ulertzeko modu batena, gurea. Bere sustraiez harro dagoen kultura baten adierazpidea da, ikuspegi berri bat eskaintzeko tradizioa eta abangoardia uztartzen jakin duen kultura batena. BASQUE. euskal kultura eta sorkuntza garaikideari begiratzeko leihoa da. Musikaren, dantzaren, antzerkiaren, zinemaren, literaturaren, artearen eta beste adierazpide batzuen bidez euskal kultura eta euskara ezagutzera emateko leihoa. Eta, era berean, sormenari zabalik dagoen leku bat da, partekatzeko, zubiak eraikitzeo eta solaserako, kulturen artean elkar aditzen lagunduko diguten elkarritzketa berriei bide emateko.

Les européens partageons un riche héritage culturel issu de siècles d'échanges et de flux migratoires. La diversité linguistique et culturelle est une des principales valeurs de l'Europe à laquelle toutes et tous participons avec notre spécificité. BASQUE. est le reflet d'un pays (la terre de l'euskara), d'une histoire, d'une façon d'appréhender le monde, la nôtre. L'expression d'une culture fière de ses racines, qui a su englober la tradition et la modernité pour offrir un nouveau regard. BASQUE. est une fenêtre d'où nous pouvons nous pencher pour découvrir la culture et la création contemporaine basque à travers la musique, la danse, le théâtre, le cinéma, la littérature, l'art... Et sa langue, l'euskara. Et en même temps, un lieu ouvert à la créativité où nous nous pouvons partager, jeter des ponts et générer de nouvelles conversations qui contribuent au dialogue entre les cultures.

**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA

•EUROPEÑA  
EUROESKUALDEA  
EUROREGION  
ESTADO ESPAÑOL  
GOBIERNO VASCO  
CONSELLERIA DE CULTURA  
CONSELLERIA DE DEPORTE  
CONSELLERIA DE TURISMO  
CONSELLERIA DE INVESTIGACIONES  
CONSELLERIA DE CULTURA  
CONSELLERIA DE DEPORTE  
CONSELLERIA DE TURISMO  
CONSELLERIA DE INVESTIGACIONES